

# SOZIOLOGIA

Nerea BANDRES GARCIA

DIVERSIDAD FAMILIAR EN LA  
SOCIEDAD Y EN LA ESCUELA/  
*FAMILIA ANIZTASUNA*  
*JENDARTEAN ETA ESKOLAN*

TFG/*GBL* 2013



Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

Grado en Maestro de Educación Primaria  
/  
*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Gradu Bukaerako Lana  
Trabajo Fin de Grado

***FAMILIA ANIZTASUNA JENDARTEAN ETA  
ESKOLAN  
DIVERSIDAD FAMILIAR EN LA SOCIEDAD Y EN  
LA ESCUELA***

Nerea BANDRES GARCIA

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Nerea BANDRES GARCIA

**Izenburua / Título**

Familia aniztasuna jendartean eta eskolan / Diversidad familiar en la sociedad y en la escuela.

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Olatz MUÑOZ ARRIETA / Olatz MUÑOZ ARRIETA

**Saila / Departamento**

Soziologia / Sociología

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2013/2014

**Seihilekoa / Semestre**

Udazkenekoa / Otoño

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAK egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduoko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituenak. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua oinarri teorikoetan zein gaiak irakasle lanbidearekin duen harremanean egin du ekarpena. “Gizartea, familia eta eskolainklusiboa” eta “Gizarte- antolaketa eta giza garapena” arloek lanari dagokion gizarte eta sozializazio aspektuak ulertu eta garatzeko lagundu dute; “gizartea, familia eta eskola inklusiboa” eta “Hezkuntza prozesuak eta testuinguruak” arlo pedagogikoak osatzeko lagungarria izan zaizkit. “Garapen ebolutiboa eta ikaskuntza” arloek zenbait aspektu psikologikoen inguruko zertzelada batzuen inguruan hausnartzen lagundu didate. Azkenik, “Irakasle lanbidea” arloak hurrengo lanak irakasle lanbidearekin duen harremana garatzen lagundu dit, legediaren markoa eta tutoretzaren esku- hartze eremuak osatzeko. Didaktika eta diziplinako moduluak bide eman du tutoretzaren bidezko zenbait proposamen didaktiko egiteko.

Halaber, Practicum moduluak bide eman dit inkesta egiterakoan zentrua ezagunagoa izatea eta tutoretza ekintzak duen garrantzia barneraturik izatea, bai eta familiek hurrekin duten inplikazioak haien garapenean duen eragina ikustera baita familia aniztasunaren gaia lantzeko modua ezagutzea ere (behatz eta irakaslearekin eztabaidatuz). Azkenik, aukerako modulua garatzen da zehazki “Hezkuntza inklusiborako proposamen pedagogikoak” arloan hezkuntzarako har daitezkeen neurriak lantzeko lagundu dit.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako, ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratuta behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Antecedentes”, “Objetivos”, “Enfoque razonado de los/las autores/as”atalak , baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.



## Laburpena

Familiak eta eskola sozializazio agente garrantzitsuak dira eta eskola eredu bakarra ez dagoen bezala, ez dago familia eredu bakarra; familia hoberen definitzen duen hitza aniztasuna da. Familia bakoitza eredu eta egoera ezberdina dauka. Hurrengo lanak familiak jasan duen bilakaera, Lehen Hezkuntzako ikasleen familia aniztasuna, honi ematen zaion tratua (gai honen lanketa eskolan eta etxean) eta honen eragina ikasleengan aztertzen da. Hau osatzeko zenbait autorek emandako familiaren definizio eta ezaugarriak erabili dira baita eskolarekin familiek daukaten harremana eta partaidetzaren inguruan emandako iritzi arrazoituak. Behin hau landu eta kasu zehatz bat ikertu eta gero, lan honen amaieran familia aniztasunaren lanketarako aipamenak eta proposamenak egiten dira gehien bat eskola eta familiei bideratuk. Hau guztia eskola inklusibo batera begira.

*Hitz gakoak:* familia; aniztasuna; Lehen Hezkuntza; eskola inklusiboa; sozializazioa

## Resumen

Las familias y la escuela son agentes socializadores muy importantes y tal y como no hay un único tipo de escuela, tampoco hay un único tipo de familia; la palabra que mejor define la familia es la diversidad. Cada familia es diferente (tanto en tipo de familia como en la situación que vive). El siguiente trabajo trata los siguientes temas y aspectos: la evolución que ha vivido y vive la familia, la diversidad familiar del alumnado de primaria, el trato que se le da a esto (el trabajo sobre este tema en la escuela y en la familia) y la repercusión de todo esto sobre el alumnado. Para completar el trabajo se han utilizado las definiciones y características que han propuesto diferentes autores sobre la familia y las reflexiones que han hecho sobre la relación de escuela-familia. Una vez trabajado todo esto y después de investigar sobre el caso de una escuela en concreto, al final de este trabajo se hacen propuestas para el trabajo de la diversidad familiar dirigido a las escuelas y a las familias. Todo esto teniendo en mente la escuela inclusiva.

*Palabras clave:* familia; diversidad; educación primaria; escuela inclusiva; socialización.



## **Abstract**

Family and school are very important socializing agents and as there is not a unique kind of school, there is not a unique type of family; the word that best describes the family is diversity. Each family is different from each other (as much to the kind of family as to the situation it is living). The present work deals with the following topics and aspects: the evolution of the family, the familiar diversity of the students in primary school, how these different situations are dealt (in school and within the family) and the effects this has on the students. In order to complete this work, definitions and characteristics of the family by various authors and reflections about the relationship between school and family have been used. Once I worked this and after investigating a case of a concrete school, at the end of this work there are some suggestions about how to work with familiar diversity addressed to schools and families. When working the diversity, we must keep in mind the inclusive school.

*Keywords:* family; diversity; primary education; inclusive school; socialization

## **Aurkibidea / Índice**

### **Sarrera / Introducción**

<b>1. Familia. Aurrekariak eta helburuak</b>	<b>1</b>
1.1. Aurrekariak / Antecedentes	1
1.2. Helburuak / Objetivos	7
<b>2. Marko teorikoa. Oinarriak eta irakasle lanbidearekin harremana</b>	<b>8</b>
2.1. Oinarriak	8
2.1.1. Soziologia. Sozializazioa eta familiak	8
2.1.2. Pedagogia. Familiak eta eskola	14
2.3. Irakasle lanbidearekin harreman	17
<b>3. Garapena. Ikuspegi historikoak. Abiapuntu kontzeptuala</b>	<b>22</b>
3.1. Ikuspegi historikoa. Familiaren errealitateak jasan duen bilakaera	22
3.2. Abiapuntu kontzeptuala	25
<b>4. Autoreen ikuspegi arrazoituak</b>	<b>28</b>
<b>5. Errealitatera gerturatze bat (atal praktikoa)</b>	<b>35</b>
5.1. Ikerketaren aurkezpena	35
5.2. Emaitzen azalpena eta balorazioa	45
<b>6. Eskolarako eragin sozial, pedagogiko eta psikologikoak</b>	<b>61</b>
6.1. Proposamen pedagogikoak	61

### **Ondorioak**

### **Erreferentziak / Referencias**

### **Eranskinak / Anexos**

**A. I. Eranskina/ Anexo I : inkestaren plantilla/plantilla de la encuesta realizada**

## **SARRERA**

Hurrengo lana gizartean gaur egun dagoen familia aniztasuna (eredu eta egoerak) eta eskolan egiten den honen lanketa edo trataera aztertzean zentratu da, irakasle bezala ekar ditzakeen onurak edo egin ditzakeen ekarpenak kontuan izanik. Hasieratik, helburuetako bat egoera aztertzea da, horretarako informazio iturri ezberdinetatik baliatu naiz: idatziriko informazio iturriak, hala nola, autore ezberdinek familia aniztasuna eta honen trateraren inguruan dituzten ikuspuntu ezberdinak eta nik sortutako inkesta. Lan honetan erabilitako norberaren egintzazko iturria, Iruñeko Alde Zaharreko Frantisko Deuna eskolan proposatu eta egindako ikerketa da, errealitatera hurbilpen bat eginez. Amaitzeko, erantzunen analisitik hainbat ondorio atera eta proposamen egiten dira.

## **1. FAMILIA ANIZTASUNA: AURREKARIAK ETA HELBURUAK**

### **1.1. Aurrekariak / Antecedentes**

El concepto de familia, sus funciones y características ha sido un tema que se lleva estudiando, trabajando y debatiendo desde hace muchísimo tiempo. En este trabajo se habla sobre las cuatro principales perspectivas sociológicas que han tenido relevancia. Vamos a exponer argumentos tanto de quienes defendían estas perspectivas como de quienes hacían crítica sobre ellas. Estas perspectivas son, la funcionalista, la visión crítica de la familia, la marxista y la feminista, tal analizan Haralambos, M & Holborn, M (1995, 4ª.edition) en su trabajo libro Families and households, 317- 331 pags. De: SOCIOLOGY, THEMES AND PERSPECTIVES Ed. Collins Educational.

#### **1.1.1 Perspectiva funcionalista**

Esta perspectiva se plantea 3 preguntas principales:

- ¿Cuáles son las funciones de la familia? (aportaciones de la familia al mantenimiento del sistema social)
- ¿Cuáles son las relaciones funcionales entre la familia y otras instituciones sociales? (integración entre los elementos de la sociedad)
- Funciones de la familia para sus miembros individuales.

No podríamos hablar sobre esta perspectiva sin hablar de G. P. Murdock (1897-1986), el cual nos habla de las funciones de la sociedad y de los individuos en *The Social Structure* (1949).

#### *Funciones de la sociedad*

La familia cumple 4 funciones básicas en la sociedad. La función sexual, reproductiva, económica y educativa. Aunque estas funcionalidades no las cumple exclusivamente, hace importantes aportaciones que ninguna otra institución hace.

#### *Funciones de los individuos y la sociedad*

Las funciones de la familia en la sociedad son inseparables de sus funciones de sus miembros individuales. Estas funciones actúan al mismo tiempo y de la misma manera tanto en los individuos como en la sociedad. La función sexual es un buen ejemplo. Las parejas sentimentales tienen el derecho de acceso sexual entre ellos. Esto les provee de gratificación sexual. Al mismo tiempo, fortalece la familia ya que las emociones acompañadas de relaciones sexuales unen a las parejas. Por lo tanto, la función sexual también ayuda a estabilizar la sociedad.

Según Murdock, la función económica no sólo satisface a la sociedad, sino que proporciona experiencias satisfactorias para los cónyuges al mismo tiempo que consolidan su unión.

Las críticas que se le hicieron a Murdock iban en esta dirección:

Morgan anota que Murdock no responde a la siguiente cuestión: “hasta que punto estas funciones básicas están inevitablemente ligadas a la institución de la familia nuclear”.

Además expone que “la familia nuclear de Murdock es una institución extraordinariamente armoniosa.

Talcott Parsons ( 1902-1979) es uno de los autores más importantes y necesarios para trabajar el concepto de familia tal y como lo expresa en su obra *El sistema social* (1951).

Para hablar de las funciones “básicas e irreducibles” de la familia Parsons se centra en la familia en la sociedad americana moderna. Defiende que existen dos funciones básicas e irreducibles comunes en todas las sociedades. Estas son la “socialización primaria de los niños” y la “estabilización de las personalidades de los adultos en la sociedad”.

Socialización primaria: Esta socialización ocurre en los primeros años de infancia. La socialización secundaria ocurre durante años más tarde cuando la familia está menos involucrada e influyen otros factores externos.

Existen dos procesos básicos en la socialización primaria: la interiorización de la cultura de la sociedad y la elaboración de la personalidad.

Según Parsons, la cultura es interiorizada como parte de la estructura de la personalidad. Él considera a las familias “fábricas que producen personalidades humanas”. Cree que son esenciales ya que este es el único contexto que proporciona calidez, seguridad y apoyo mutuo.

Respecto a la estabilización de personalidades adultas defiende que una vez reproducidas, tienen que mantenerse estables. Lo que Parsons enfatiza aquí es la relación matrimonial y la seguridad emocional que la pareja proporciona. Esta seguridad contrarresta con el estrés del día a día que podrían desestabilizar la personalidad.

Según Parsons, la familia proporciona un contexto en el que los cónyuges pueden entre otras cosas estabilizar su personalidad.

Al igual que Murdock, Parsons también recibió sus críticas en la siguiente dirección:

Esta imagen está basada en la clase media americana. Parsons no explora las diferencias posibles entre la clase media y la baja, ni estructuras familiares diferentes.

Parsons no explora alternativas funcionales a la familia.

Dentro de esta corriente analizamos la obra *The War Over the Family* (1983) escrita por los autores Brigitte Y Peter Berger son los que se centran en la defensa de la familia burguesa.

En su punto de vista apoyan aquellos aspectos que benefician a la vida familiar. Aceptan que la familia no es perfecta, pero que no existe una alternativa viable que no sea la familia burguesa para proporcionar las necesidades del individuo y de la sociedad en el mundo moderno.

En cuanto a los orígenes de la familia burguesa, según los Berger el origen de la familia burguesa está en la clase media europea del siglo XIX, y particularmente en Alemania y Gran Bretaña victoriana. Sus características principales eran el bienestar de los niños, valores morales estrictos, el éxito económico y la religión.

La familia y el individualismo: Los Berger defienden que la familia burguesa combina la fuerte disciplina con el individualismo. Los niños conocen la importancia de los valores morales en la familia burguesa, al mismo tiempo que desarrollan autonomía. La familia burguesa enseña a los niños a respetar la individualidad de otros.

Problemas con la crianza de los hijos por colectivos: Peter y Brigitte defienden que criar a un hijo en un colectivo es menos favorable que hacerlo en una familia burguesa. Aseguran que la primera opción crea personalidades conformistas y dependientes. Mientras que la familia burguesa crea gente capaz de ponerse en contra de la

comunidad si hiciera falta. Gente que puede actuar y pensar independientemente de que respeten los valores básicos de la sociedad.

Las críticas que han recibido han sido duras en esta dirección:

Ellos recalcan los aspectos positivos de la familia pero no mencionan las restricciones que han sufrido las mujeres en esa sociedad.

### 1.1.2. Visión crítica de la familia

Destacamos a:

Edmund Leach (1910-1989) *A Runaway world* (1968. London BBC) : Visión pesimista de la familia en la sociedad industrial. La conclusión de Leach es prácticamente opuesta a la funcionalista. Expone que “lejos de ser la base de una buena sociedad, la familia es la causa de todos nuestros disgustos.”

R.D. Laing (1927-1989) *The Politics of the Family and other Essays*. (1972. London Tavistock Publications): Laing era psicoanalista y presenta en este estudio una alternativa a la imagen funcionalista de la “familia feliz”. Está interesado en la interacción dentro de la familia. Su estudio está basado en familias en las que haya un persona diagnosticada con esquizofrenia.

Laing mantiene que las diferencias entre familias “normales” y “anormales” son pequeñas. También defiende que se pueden aprender muchas cosas de esas familias etiquetadas como “anormales”.

Explotación en la familia: Laing se concentra en los aspectos explotadores de las relaciones familiares. Con algunos ejemplos nos ilustra que la familia puede llegar a ser una institución destructiva.

Laing se refiere al grupo familiar como un nexo.

Interiorización recíproca: Laing considera que el proceso de interiorización como dañino psicológicamente, ya que restringe el desarrollo de uno mismo.

El “gueto” familiar: De acuerdo con Laing, la familia crea barreras que separan la familia y el mundo exterior. Esto, lleva a que los niños vean el mundo en términos de “nosotros y ellos”. Los niños aprenden a obedecer a sus padres. Este patrón de obediencia hace que los niños, cuando crecen no se cuestionen nada.

Críticas a Leach y Laing:

Ninguna de las dos ha sido un estudio detallado de la familia en una sociedad contemporánea industrial y de hecho el estudio de Laing está limitado a familias en las que un miembro ha sido diagnosticado con esquizofrenia.

Además tanto un autor como otro hablan de “la familia” con pocas referencias en su posición en la estructura social.

Otra de las críticas que se les ha hecho subraya que Leach examina la familia sobre el tiempo pero el trabajo de Laing carece una perspectiva histórica.

Leach y Laing nos han proporcionado una visión en contrapeso con la visión funcionalista que ha dominado el pensamiento sociológico sobre la familia durante varios años.

### 1.1.3 Perspectivas Marxista de la familia

Para tratar esta perspectiva es fundamental mencionar a Friedrich Engels (1820-1895):

La perspectiva marxista fue una visión crítica desde la que se analizó el origen materialista de la familia, y fue Engels en su trabajo *El Origen de la Familia, la Propiedad privada y el Estado* (1884). Este filósofo combinó un enfoque evolutivo con teorías marxistas.

Según este autor, *la evolución de la familia* habría sido la siguiente:

A lo largo de la historia, se han ido restringiendo mas las relaciones sexuales y la producción de hijos/as.

La familia monógama nuclear se desarrolló con la emersión de la propiedad privada. El gobierno estableció leyes en las que se protegía la propiedad privada y se tenían que cumplir las reglas de un matrimonio monógamo. Los hombres eran los que poseían los bienes, así que para que los pudieran heredar sus hijos, controlaban muy estrictamente y no había dudas sobre la paternidad.

También Eli Zaretsky con su obra *Familia y vida personal en la sociedad capitalista* (1976) merece su espacio en este trabajo.

Zaretsky respalda la idea de que la familia en la sociedad capitalista moderna crea la ilusión de que la vida privada familiar está distanciada de la economía.

En una sociedad alienante la familia, Zaretsky asegura que la familia fue puesta en un pedestal ya que proporcionaba satisfacciones que eran imposible de conseguir fuera de casa.

La familia aísla artificialmente la vida personal de otros aspectos de la vida. Puede que amortigüe los efectos del capitalismo pero perpetúa el sistema y no se puede compensa por la alienación general producida por una sociedad así.

Es más, Zaretsky ve la familia como el mayor sostén de la economía capitalista. Para Zaretsky, solamente el socialismo acabaría con esta separación artificial de la vida privada familiar y de la vida pública, y produciría la posibilidad de satisfacción personal.

#### 1.1.4 Perspectiva feminista de la familia

El feminismo ha sido una de las perspectivas que más ha influenciado el estudio de las familias. Ha criticado altamente a las familias, y con ello ha desarrollado nuevas perspectivas y subrayado nuevas cuestiones.

Por ejemplo, han introducido el estudio en las áreas de la vida familiar, tales como las tareas del hogar y la violencia doméstica en la sociología. Sobre todo, las teorías feministas han alentado a los sociólogos a ver a la familia como una institución que participa de relaciones de poder.

##### *Perspectivas marxistas/feministas de la familia:*

La perspectiva marxista feminista hace uso de conceptos marxistas pero ve la explotación de la mujer como una característica clave en la vida familiar.

##### *La producción de la fuerza laboral*

El hecho de que el marido deba trabajar y mantener dicho trabajo para un futuro actúa como una fuerte disciplina en su comportamiento en el trabajo. En el papel de ama de casa, la mujer atiende a las necesidades de su marido para que pueda seguir siendo el que lleva el dinero a casa.

Fran Ansley ve este apoyo emocional como una válvula de seguridad para la frustración producida por trabajar en un sistema capitalista.

##### *Condición ideológica*

La reproducción social de la fuerza laboral conlleva a reproducir actitudes esenciales para un trabajo eficiente en una sociedad capitalista.

Diane Feeley sostiene que la estructura de las relaciones familiares hace que los jóvenes acepten su lugar en una sociedad estratificada en clases. También argumenta que con esta ideología autoritaria lo que se enseña es pasividad y no una sublevación.

Han sido diversas las críticas que ha recibido esta perspectiva:

Trabajos marxistas/feministas más recientes han tenido más en cuenta variables de la vida familiar. Michèle Barret y Mary McIntosh creen en la idea de que el concepto de "la familia" crea confusión, ya que hay una gran variedad de familias. No existe una familia típica y por esta razón es imposible pretender que la familia siempre actúa de la misma manera en la sociedad.

##### *La familia "antisocial"*

Barret y McIntosh en su obra *The Anti-social Familia* (1991). defienden que la idea de familia es "antisocial" porque esto destruye lo que queda fuera de la familia. El ideal de la familia hace que todo lo demás parezca insulso e insatisfactorio.



Ellas puntualizan que la imagen de la familia que contiene amor y afecto ignora la cantidad de crímenes violentos y sexuales que ocurren dentro del contexto familiar. Ellas no niegan que dentro de las familias haya relaciones de afecto pero piensan que las familias no son el único lugar en el que relaciones como esas pueden desarrollarse.

## **1.2. Helburuak / Objetivos**

- Recopilar y analizar información (estudios, artículos, libros...) publicada hasta el momento acerca del tema para tener un punto de partida.
- Conocer las perspectivas que tienen diferentes autores sobre el concepto de familia y sus características para poder reflexionar acerca de ellos.
- Conocer y explicar la evolución que ha tenido la familia (y el concepto) y describir las causas sociales que han influido.
- Clasificar los tipos de familias y describir las características principales de estas.
- Conocer el tratamiento que hace la escuela al trabajar el tema de la diversidad familiar.
- Conocer y explicar el proceso (las etapas) de socialización de las personas. Y explicar el papel que juegan la familia y la escuela en este proceso de socialización.
- Comprender la importancia de un trabajo en común entre familia y escuela.
- Valorar y explicar opiniones sobre esta relación (escuela-familia) tiene en el rendimiento del alumnado: en los resultados académicos y en su socialización.
- Analizar y reflexionar sobre una nueva dinámica en las escuelas: los grupos interactivos
- Hacer un análisis cuantitativo y cualitativo sobre la diversidad familiar en tres cursos de los tres ciclos de primaria.
- Recoger la visión que tienen las familias de estos cursos sobre la diversidad familiar y el trabajo de este (el tratamiento que se le da) tanto en la escuela como en casa.
- Reflexionar acerca de la influencia que puede tener el llevar a cabo este estudio en aspectos sociales y pedagógicos; entendiendo así la importancia del tema tanto a nivel social como a nivel educativo.

- Sugerir medidas tutoriales que se pudieran tomar en relación con la diversidad familiar, en lo que al trabajo de diversidad familiar respecta, para mejorar la socialización del alumnado y orientar su adecuada evolución.

## **2. MARKO TEORIKOA: OINARRIAK ETA IRAKASLE LANBIDEAREKIN HARREMANA**

Familia aniztasunaren gaia garatzeko garrantzitsua da alde batetik oinarri soziologiko zein pedagogikoak aztertzea, baita honek irakasle lanbidearekin duen harremana ere.

### **2.1. Marko teorikoa: oinarriak**

#### **2.1.1. Soziologia: Sozializazioa eta familia**

Sozializazioa esaten zaio gizabanakoek komunitate bateko ohiko bizimoduak ikasteko eta barneratzeko egiten duten prozesuari. Proesu honen bidez, gizartea denboran zehar birsortzen da eta gizabanakoak historia konkretuan sartzen dira, gure espeziearen ezaugarria baita hori. Sozializazioaren bidez, biologikoki sortutako gizabanakoa gizarte eta kultura gizaki bihurtzen da, hau da, gizarteratu egiten da. Ez badago hasieratik sozializaziorik talde baten barruan, ezin da gizaki-bizitarik izan. Taldean, hizkuntza bat ikasten da eta hizkuntza horren bidez, pentsatzen; gizartean mamitzen dira emozio, sentimendu eta ohitura bikainenak baita beldugarrienak ere. Sozializazioaren bidez gizakiak ikasten du zer rol bete behar dituen instituzioetan (familia, hezkuntza, ekonomia, politika, aisia, erlijioa...) gizabanakoak esanahi komuneko jarrerak eta arauak barneratzen ditu eta horietako batzuk sozializatutako gizabanakoaren nortasunaren egituraren bertan ere finkatzen dira.

Lehen mailako sozializazioa: gizabanakoaren haurtzaroan ematen da, harremanak pertsonalak eta barneratzaileak dira eta hurbiltasun fisikoa dago kideen artean, taldeak txikiak eta iraunkorrak dira; ezinbesteko prozesua da, izan ere, haurtzaroan giza harremanik izan ezean, gizabanakoak atzerapen fisiko eta intelektualak izaten ditu, baita emozio asalduek sendaezinak ere. Lehen mailako sozializazio honetan funtzio nabarmena betetzen du familia. Prozesu honetan osagai normatibo, kognitibo eta afektiboak dira protagonistak. Familiak alor afektiboan paper pribilegiatua dauka: kriterioa, jarrera ta baloreak, zuzentasuna eta konstantzia, autokontrola, harduraren zentzua, ikasketekiko motibazioa, lana eta bakoitzaren esfortzua, oreka emozionala, garapen soziala, autonomiaren garapena.... landuz. Lehenengo urteetan familiak bitartekari papera dauka haurren eta bere inguruaren arteko harreman horretan, garapen sozial eta pertsonalean paper garrantzitsua izango duelarik. Lehen ulertzen zen eskolak irakasteko ardura zuela eta familiari hezitzaile papera zegokiola batik bat.

Orain, ordea, bide berri batean gaude, non eskolak bi behar horiek barne hartzea lortu nahi den; ideia hau indarra hartzen ari da gutxienez, nahiz eta, noski, asko geratzen den oraindik.

Egia da sozializazio prozesua ez dela haurtzaroan amaitzen inondik inora, bizitza osoan zehar irauten du. Esaterako, helduaroan, langile, bikotekide, ama, aita, demokrata, aiton, amona, erretiratu... izaten ikasten da. Sozioalizazio honi bigarren mailako sozializazioa deitzen zaiolarik. Azaldutako lehenengo sozializazioan ez bezala, honetan lotura emozionala ez da beharrezkoa, baizik eta helburu batek batzen duen harremana.

Behin hau azaldutan, familian zentratuko gara, zehazki familia talde gisa:

Gizarte taldeetan, kideen artean lotura, neurri batean edo bestean iraunkorrak daude bai eta talde horretako kide izatearen kontzientzia ere. Aspektu honetan pertsonen multzo estatiko hutsa eta gizarte kategoriak bereizten ditugu eta egiten den beste sailkapen bat taldeen artean komunitateak eta elkarteak dira. Komunitatean: kideek konpromiso pertsonal orokorra dute taldeko kide izateko garaian, ez da izaten rol bakar edo periferiko baterako soilik. Taldea helburutzat eta berezko baliotzat hartzen dituzte kideek eta ez bakarrik beste helburu batzuk lortzeko bitarteko edo tresnatzat. Lotura afektiboak ere badaude kideen artean, baita behartu gabeko harreman ugari ere. Elkarte bateko kide izateak, ordea, ez dio konpromiso orokorrik eskatzen gizabanakoari, baizik eta askotan kontratu bidez arautzen diren rol batekiko edo batzuekiko konpromisoa.

Bada, familia da ereduzko komunitatea, talde tipo garbi horretara gehien hurbiltzen dena. Hala ere, familia batzuetan harreman instrumentalak edo elkartze harremanak dira nagusi komunitate harremanen gainetik. Lehen hezkuntzako gela, edo eskola osoa, bigarren mailako taldea da baina sozializazio hobea lortzen da komunitate loturak sustatzen badira gelan eta ikasle irakasle eta familien artean; alegia, taldearekiko lotura sustatzen da eta lotura horren bidez instituzio sarean sartu eta beste hezkuntza helburu batzuk lortzen dira. Familia, lehen mailako harremanak eta komunitate harremanak dituen pertsona talde bat baino zerbait gehiago da, gizarte ordenaren oinarritzko egitura da, instituzio bat da. (Instituzioaren funtzioa gizarte bizitzako funtsezko behar baten edo batzuen inguruan sozialki zehaztutako posizioen rolen eta arauen multzoari behar horiek betetzea da). Zehazki, familia instituzio zabalduenak oinarritzko funtzio hauek ditu: sexu harreman egonkorran izan ditzakete bikoteak, eta erabateko gizarte onarpena izango dute, haren barruan gizabanakoek etengabeko babes afektiboa jasotzen dute, haurrak legearen arabera izaten edo adpotatzen dira, gizartearen onarpenarekin, sozializatu egiten dira, abiapuntuko gizarte posizio batean jartzen dira familiako kideen mantenu beharrak eta zainketa materialak asebetetzen dira.

*Familia motak:*

Ez dago eredu mota bakarria familien artean, aniztasuna da hoberen definitzen duen hitza, familia eredu ezberdinak daude baita oso egoera ezberdinak ere:

Seme-alaben hezkuntzan partehartze txikiena ere daukan pertsona oro hauen errealitatea ulertzen laguntzeko interesgarria eta zenbait kasutan beharrezkoa da, dauden familia eredu guztiak ezagutu eta behintzat ezaugarri batzuk jakitea. Aniztasun hau ez soilik onartua izateko baizik eta tratatu eta aniztasuna ikasteko tresna gisa izateko modua aurkitzeko: kasu honetan 13 eredu ezberdinduko ditugu nahiz eta badakigun familia instituzio dinamikoa izanda aldaketak jasaten dituela eta gerta daiteke bizitzaren momentu batean egoera familiarra eredu batzuen barruan kokatzea eta gero hau aldatuz, beste eredu batean kokatzea, familia eredu sailkapena Lucia Aguadok (2010) proposatutako sailkapena da bere *Familia ereduak gaurko eskolan* lanean.

1. Familia hedatu edo konplexuak: etxerik gabeko zenbait bikotek gurasoekin konpartitzen dute etxea, edo bereiztu ondoren gurasoen etxera bueltatzen denean adibidez. Gaur egun mota honetako familia asko ditugu zeinak seme alabak gurasoak eta aiton edo amonarekin bizi diren. Hauetan aiton amonek duten papera izugarri aldatu da denboran zehar eta gero eta indar gehiago daukate aiton amonen figura.
2. Familia nuklear funtzionala: Gurasoek eta seme-alabek (biologiko edo adoptatuak) osatzen dutena. Orain arte familia tradizionala bezala ezagutu duguna, baina zenbait aspektutan eraldaketa nagusia jasan du: bai kopuruan eta are garrantzitsuagoa ezaugarrietan ere. Interesgarria da rolen aldaketa zeozer aztertzea izan ere lehen aitak etxetik kanpo lan egiten zuen dirua lortzeko eta ama zen seme-alaben eta etxeko beharrez harduratzen zena. Orain, ordea, emakumeak etxetik kanpo lan egiteak harreman sare hauetan aldaketa suposatu du. Jadanik ezkontza ez da familia mota honetan ezinbestekoa eta erraztasunez bereizi eta familia berriak eratzen dituzte. Hainbat modutan era daiteke familia nuklearra, loturaren izaeraren arabera: ezkontza erlijioso baten bidez, edo ezkontza juridikoaren bidez edo izatezko bikote egonkor baten bidez.
3. Gurasobakarreko familiak: guraso batek eta seme-alabek osatzen duten familiak. Betidanik existitu diren arren, izugarri hazitu da hauen kopurua. Aldaketa egon da baita gizartean familia hauei eman zaien tratuan edo ulertzeko moduan. Izan ere, gutxi errespetatuak izaten ziren normalean adibidez "familia hautsi edo deseginak" deituz eta orain familia aniztasunaren eredu bat besterik ez da. Nola irits gaitzke egoera honetara? Alarguntasunaren ondorioz, bereizketak emategatik, seme-alabak ezkontzatik kanpo

izanik...Hausnarketa bat planteatu daiteke aspektu honetan izan ere lehengo eta oraingo familia nuklearrak praktikan ez al ziren gurasobakarreko familiak? Ez al ziren eta orain kasu batzuetan emakumeak seme alaben zainketaz, hezkuntzaz eta etxeko lanez harduratzen direnak?

4. Izatezko bikoteak: Hauen ezaugarri nagusia da ezkondu ez den bikote batek harreman iraunkorra eratzen dutela. Eta jendartean dagoen krisi egoeran oso ulergarria da bikote kopuru honen hazkuntza baita balorazio sozial eta juridikoan aurraperak ere.
5. Seme-alabarik gabeko guneak: hauen arrazoa bi bidetatik etor daiteke: batetik seme-alabarik ez izatea erabakitzeagatik hau da, erabaki propioa edo etxetik alde egitean oraindik gazteak direlako. Egia da momentuan gero eta adin helduagoarekin erabakitzen dela etxetik alde egitea.

Bigarren arrazoa oso testuinguratu dago gaurko gizartean. Nahiz eta orandik jendarteak guregan espero duena (modu inplizitu zein explizitu batean heltzen zaigun mezuen bitartez) familia bat osatzea, eta kasu honetan familia eratzea seme alabak izatearekin lotuta dagoen, egia da ez dela lehen bezala eta errealitatea ez dela hori, familia eta harremanak izaera ezberdina garatzen ari dutenez ulergarria da familia eredu honen hazkuntza kopuru aldetik.

6. Pertsona bakarreko guneak: atal hau aukeratutako bakardadearekin harremanatu daiteke. Gai honen inguruan Carmen Alborch-ek (1999) dio bakarrik bizi izateko aukera gaur egun posiblea dela independentzia ekonomikoagatik, sexu harremanetan izandako aldaketengatik, eta pertsonen arteko harremanetako malgutasunari esker. Honetaz gain dibortziatuak, bereiztuak, ezkongabeak eta alargunak sar daitezke multzo familia eredu honen barruan. Esparru honetan eta adin gehiagoko pertsonetan zentratuz izugarritzko garrantzi hartzen dute pentsioak, laguntza mediku eta sozialek.
7. Familia berreraikiak: familia mota honen partaideak ama aita anaoirdeak, arrebak edota anai-arrebak izan daitezke. Familia mota honetan sailkatzen direnak gero eta ugariagoak dira baina interesgarria da jakitea gizonek emakumeek baino joera handiagoa dutela osatzeko. Nolabait bereiztu eta gero emakume gehiengoan erabakia gurasobakarreko familia osatzea da ama bere seme-alabekin. Familia eredu honetan partaideen arteko harremanetan konplexutasun puntu bat nabaritzen da; guztien ezaugarri eta bizitako egoerak familiaren dinamikan integratzean. Honek eztabaidak sortzen ditu familian ohiturak, mugak, aukerak eta erabakiak hartzerako orduan guztion onerako. Baina merezi du esateak lotura genetikoa baino garrantzitsuagoak direla beste faktore batzuk, besteak beste: adinak aldaketa gertatzen denean,

gurasoen arteko harremana, bakoitzaren bizitza, erabakiak hartzeko modua, arazoei aurre egiteko era...

8. Etorrinen familia aniztasuna: Azken urteetako migrazio mugimenduek eragina izan dute familien konfigurazioan. Askotan gurasoetako bat edo biak bere herrialdea uzten dute bizi kalitate eta baldintza hobeen bila, seme-alabak familia zabalaren hardurapean utziz. Errealitate berriak familia berriak sortzen dira eta familia zabalak, aiton amonak berebiziko garrantzia hartzen dute. Askotan familia hauetan nolabaiteko estabilitatea lortu arte gora behera handiak egoten dira bai espazioan baita harremanetan ere.
9. Adopzio familiak: Mota honetan zehaztapen batzuk gehiago emango dira, izan ere, eskoletan gero eta familia gehiago izaten dira. Familia eredu honetan azpimarratzekoa da lotura genetikorik ez dagoen arren, haurrak ekartzeko nahia handia izaten dela, denbora luze pasa eta gero, izan ere adopzio tramiteak oso luzeak dira. Zertxobait azaltzearen prozesuaren pausu gakoak esango dira: erabakia hartu, adoptatzailearen edo bikotearen egoera aztertzen da, egokitasun egiaztagiria ematen da eta kontu burokratikoak amaitzean, gursoak umearen bila joaten dira. Orduan hasten da prozesu honetan beste etapa bat: ezagutu eta onartzeko garaia. Adopzio tokiaren arabera etapa honen hasiera ez da berdina egiten baita haurraren adinaren arabera baina zerbait progresiboa da kasu gehienetan, ezin zara lehenengo egunetik denbora osoa haurrarekin egon.

Askotan plantetazen den gai bat familia barruan baita askotan eskolarekin batera izaten da: “zer esango diogu eta noiz esango diogu bere aurreko bizitza?” Gai hau planteatzean, haurraren izaera, baita etapa bakoitzaren ezaugarriak, guraso eta haurrarekin dagoen harremana... oso kontutan hartzen dira. Interesgarria da egon daitezkeen zailtasunen arrazoi batzuk eta sor daitezkeen arazo psikologiko batzuk aipatzea gutxienez, prebentzioan edo soluzioan lagungarri izan baitaitezke. Presente izan behar diren zenbait aspektu honakoak dira: gurasoen itxaropen desegokiak, arazoaren aurrean aurre egiteko modua, komunikazio modua, maitasuna azaltzeko mugak, laguntza sozial eta profesional eza, umearen adina adopzioaren etapa bakoitzan, umea adoptatua izan baino lehen bere pertsona dakarren esperientzia guztiak, insituzionalizazioaren iraupena...

10. Harrera-familiak. Familia mota honi buruz hitz egiteko babes hitza erabili behar da, izan ere umeak bere gunean babesten dituzte, behin-behinekoz edo era iraunkorrean. Gizarte Zerbitzuek guraso biologikoek haien arazoak konpontzeko lanean aritzen diren bitartean. Babesa eta oreka emateko bide bat da umea abandonatuei, tratu txarrak izan dituzten umei edo une putualetan laguntza behar duten familiei. Familia biologikoetan izan ohi diren arazoetako batzuk

hauek dira: hezkuntza maila oso baxua, langabezia, arazo psikologikoak, drogazaletasunak, tratu txarrak... Honen beste aldean harrera familiak mota ezberdinetakoak diren arren haurrak zaintzeko hardura eta hezitzeko gogoia esakintzen dute. Eta protagonistentzat, haurrentzat hasieran arazoak izan ditzaketen arren denborarekin onurak ekartzen dizkie bere garapenean baita eskolako emaitzetan ere.

11. Familia homoparentalak, sexu bereko pertsonen osatua: Pertsonen joera sexuala errealtate gisa gero eta agerikoagoa bihurtzeak eragin zuzena dauka familia eredu honetan. Oraindik gaiak lanketa eta pausu ugari eman behar ditu baina ikuspuntu positibo batetik jadanik pausuak eman dira bide honeta bai egunez egun bizitzen ditugun gauzetan baita legedian ere. Familia hauetan haurrak izateko moduak bestelakoak dira: kasu batzuetan adopzioa jotzen dute, beste batzuetan intseminazioa emaile batek lagunduta, bestetan autointseminazioa lagun baten esperma erabiliz... Familia hauek nuklearrak, guruasobakarrekoak, berreraikiak edota zabalak izan daitezke. Beraz, beste behin azpimarratu beharra dago aniztasuna. Familia eredu guztien inguruan daude aurreiritziak baina honekiko tolerantzia eza oraindik puri purian dago, eta azterketa sakonik egin gabe egunez egun ikus daitezke zenbait esparrutan dituzten zailtasunak. Dirudenez familia eredu honi besteei baino gehiago exigitzen zaie eta ikerketak egin dira azkenean konprobatzeko umearen hezkuntzarekin konprometituak daudela, komunikazio eta maitasun transmisioa onak ohi direla aniztasunarekiko errespetua eta tolerantzia oinarritzat dituztela... besteak beste.
12. Ugalketa lagunduaren bidez jaiotako umeen familiak: intseminazioa, in vitro ernalketa: Normalean gurasoetako batek ez du seme-alabarekin lotura genetikorik eta beste pertsona ezezaguna izaten da. Egoera hau ezkutuan gordetzeak Golombok-el (2006) ikertu duaren arabera komunikazio arazoak eta tentsioak ekar ditzake. Familia eredu honetan oraindik asko geratzen da ikertzeko: Ze puntutaraino duen garrantzia lotura biologikoak adibidez.
13. Subrogazioaren bidez sortutako familiak: Emakume batek beste pertsona batentzako seme-alabaren bat izaten duenean. Kasu hauetan subrogazio partzialaz, ( eskaera egiten duen aitaren hazia eta ordeko amaren obulua erabiltzen da), osokoaz (bai obulua baita hazia ere eskaera egin duten gurasoenak dira) edo emailearen bidezkoa (emailearen bati sor zaio obulu edota hazia) ezberdindu daiteke. Aspektu honetan interesgarria litzateke lotura genetikoa eta umearekin bere sorreraren inguruko komunikazioa izatea, ordeko ama ezagutzea... modukoak aztertzea.

### 2.1.2. Pedagogia: familiak eta eskola

Lan honetan bi ideia hartuko dira oinarritzat: batetik, familia hezkutzan eremu ezinbestekoa denez (garrantzitsuenetariko bat zehazki), eskolaren eta familiaren elkarlana, harremana, konplizitatea ezinbestekoak dira ikasleen heziketarako. Lan honetan garatzen ez den arren, ezinbestekoa da hirugarren eragile garrantzitsuenak toki bat izan dezan, hots, komunikabideek gaur egun betetzen duten paper garrantzitsua haur hauen eskuetan. Errealitate bat da ikasleen hezkuntzaren eragile garrantzitsuak direla, beraz, errealitate hori abiapuntutzat hartuta ezinbestekoa da hauen harremanaren lanketa. Zailtasunetako bat eta baita onerako erabiltzen jakin behar den beste aspektu bat bi instituzio hauen etengabeko aldaketak dira, instituzio biziak baitira, eta etengabe berritzen ari dira.

El hecho de que existan nuevas formas de familia y, sobre todo, que comiencen a hacerse visibles, plantea nuevas preguntas a la sociedad y obliga, por tanto, a buscar nuevas respuestas. Sin duda, el hecho de que haya comenzado a hablarse de la existencia en España de diferentes tipos de familias, ha trasladado a la sociedad un debate encendido acerca de estas realidades familiares de las que se desconoce en España casi todo, comenzando por su número y siguiendo por sus características o cómo es la vida en ellas.

Sin duda, el aspecto que más preocupa de estas familias a la sociedad en general, y entendemos que al foro en que nos encontramos en particular, es la posible incidencia sobre el desarrollo de niños y niñas del hecho de crecer en diferentes tipos de familias. Así se refleja con frecuencia en los medios de comunicación y diversos debates. No es casual que esto sea así, dado que distintas instancias y colectivos están implicados en el deber de protección y atención a la infancia y, por tanto, estamos hablando de un tema que atañe no sólo a instituciones sanitarias, sino también a instituciones legislativas, judiciales, educativas o de servicios sociales.

### *Familia-escuela*

Son interesantes las diferentes ideas que se trabajan en lo que a familia-escuela respecta. Y me gustaría subrayar el gran trabajo de Lucía Aguado en esta dirección ya que analiza como se trabajan las familias en la escuela y propone medidas educativas concretas :

Así explica Aguado, L. “A pesar de ser el de la familia uno de los temas más universales y cotidianos, que evoluciona de forma paralela a los cambios socioculturales, a la institución escolar le cuesta responder a las necesidades que plantea, más si tenemos en cuenta que la diversidad familiar es un tema complejo, susceptible de muchas interpretaciones e ideologías.

La mayoría de las veces que se aborda el tema de la familia en la escuela, se hace desde el prototipo principal de la familia nuclear compuesta por el padre, la madre y los hijos. Otras aproximaciones a la diversidad de la familia actual son tratadas en muchas ocasiones como desviaciones o familias problemáticas. Dado que cada vez es mayor el número de niños que pertenecen a familias monoparentales, reconstituidas, que atraviesan por procesos de divorcio, de readaptaciones familiares, etc., es importante para su desarrollo psicológico que sientan esa diversidad familiar como una realidad habitual, no considerando a priori ningún tipo de familia mejor que otro.”

Por una parte defiende que los cambios a los que se enfrentan los niños y niñas influyen en su desarrollo personal, en su adaptación a distintos entornos sociales y en la construcción que hagan del concepto de familia. Así viviendo en una familia diferente a la nuclear prototípica o conocer familias diversas influye en la creación del concepto de familia.

Y dicho esto Aguado, L , habla del trabajo que se puede hacer desde la escuela defendiendo que “se hace necesario reflexionar en el entorno escolar sobre otras diferencias respecto a la familia tradicional como los nuevos valores y funciones de la familia, las nuevas estructuras familiares, las diferencias en la distribución de tareas, roles, estructuras de poder, organización económica y del tiempo, así como las relaciones con la familia extensa, entre otros temas clave. Si no se realiza una reflexión y un debate en torno a estas temáticas, permanecen en el currículo oculto y se siguen transmitiendo conforme a patrones que no son del todo reales en nuestra sociedad.”

Y teniendo en cuenta todo esto habla de un proyecto educativo común entre familia y escuela que permitiera responder al tipo de educación que quieren dar, así como a los medios e instrumentos que precisan para lograrlo. De esta manera podrían reflexionar acerca de las representaciones mutuas que cada una tienen de la otra y ofrecer alternativas que permitan comprender y respetar los cambios y nuevas concepciones que afectan a la familia.

## **5. ERREALITERA GERTURATZE BAT (ATAL PRAKTIKOA)**

Behin aurretik landutako teoria guztia eta gero, erraz esan dezakegu familiaren errealitateak bilakaera jasan duela, bai familien ezaugarri eta egoerak baita familia aniztasunari egiten zaion trataera bai eskolan baita etxean ere. Hau jakinda, jarraian kasu baten azterketa egin eta aztertzen da non gurasoen ikuspegia den garrantzitsuena. Eskola batean dagoen familia aniztasuna erregistratu eta aztertzen da baita gurasoek familia aniztasunari egiten zaion trataeraren inguruan (eskolan eta etxean) duten ikuspuntua ere. Garrantzitsua da teorian aztertu dugun guztia gure errealitatearekin bat datorren lantzeko eta ondorio gehiago atera ahal izateko.

### **5.1 Ikerketaren aurkezpena**

Ikerketa hau aurrera eramateko erabilitako materiala inkesta bat izan da, zeina familiei bideraturiko galdeketa den, zehazki etxean bizi diren heldu orori bideratutako galderak. Inkesta Nafarroako Iruñeko Alde Zaharrean dagoen Frantzisko Deuna eskolan egin da: Lehen Hezkuntzako D ereduko hiru geletako familiek erantzun diote inkestari: Lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako gelako familiek zehazki (ziklo bakoitzeko gela bat).

Sexua, adina, ikaslearekin daukan ahaidetasuna (ama, aita, amona, aitona...), familia eredua, ikasketa maila, lan egoera eta auzo eta eskolan duten parte hartzea adieraztea eskatu zaie honela aldagai deskribatzaile hauen eragina aztertzen dira. Eta ikasleen aldagaiak kurtsoa, anai-arreba kantitatea, familia mota izan dira, nolabait aspektu guztietan dagoen ezberdintasunaz hitz egin ahal izateko. Horrela familiaren aldagaiak, ikaslearen aldagaiak eta gaiaren zein iritzien aldagaiak gurutzatuz ondorioak atera eta baloratu ahalko dira.

Ikerketa egiterako orduan jarraitutako pausuak hauek izan dira:

*A. Gaiaren aukeraketa*

Landutako gaia dagoen familia aniztasuna da, honen lanketa (etxean eta eskolaren partetik) eta honen eragina semea-labarengan, Lehen Hezkuntzako bigarren, lagarren eta seigarren mailako D ereduko ikasleen familien ikuspuntutik.

Ikerketarako gai interesgarria iruditu zait, izan ere izugarria izan da familiaren ereduetan egon den bilakaera (bai aniztasunean baita honen onarpen eta tratuan ere) baita honen eragina. Honen lanketa oraindik bai familientzako eta are gehiago irakasleentzako erronka garrantzitsua da, bere ikasleekin haien lana jorratzeko orduan (familia aniztasunaren gaiari tratua ematea, hau ikasteko erabiltzea, familiekin norantza berdinean egotea...).

Zehazki kasu honetan familien ikuspuntua da garrantzitsua, izan ere, irakasle izango naizen heinean izan ditudan eskola-praktika guztietan modu orokor batean ezagutu dut irakasleek duten iritzia, kezka eta parte hartzea gai honen lanketa eta tratuan eta interesgarria iruditzen zait familien ikuspuntua erregistratzea eta aztertzea, nire etorkizunean lagungarri izango zaidalakoan bainago. Irakasleak dituen trabak nolabait biziko ditudalako baina akaso irakasle izaterakoan familiaren ikuspuntua presente izan behar ditudala ez ahazteko. Nolabait familiaren gaia lantzeko bai zuzenean baita zeharkako moduan eta familiekin enpatia garatzeko lagungarria izango zait, eta azkenean lan interesgarriagoa egiteko ikasle, irakasle eta familiaren artean, guztion artean norantza berdinean doan sarea osatzeko.

Bilakaera edo aldaketa (kotnrastea) aztertzeko adierazgarria iruditu zait lehen hezkuntzako bigarren, lagarren eta seigarren mailako ikasleen familiei zuzentzea, garapen oso puntu ezberdinetan daudelako ikasle hauek eta dituzten behar, kezkak, ezaugarriak oso ezberdinak direlako, horrela honek familiaren partetik dagoen inplikazioa eta ikuspuntua ezberdina izango delako. Gainera ziklo guztietan lantzen den gaia da familia aniztasuna zehazki (nahiz eta tranbsersalki beti landu behar den). Honetaz gain klase bakoitzak irakasle ezberdin bat izango du, orduan irakaslearen lanaren arabera dauden aldaketak aztertu ahal izango dira.

Ikerketarako aztergaia aukeratzeko orduan zenbait gauza hartu nituen kontutan. Batetik, Alde Zaharra gertukoa eta ezaguna dudalako, azken finean, eskola eta ikasle horiek kokatzen diren testuingurua ezagutzen dudalako, familia ugari ezagutzen ditut baita hauen errealitatea ere.

Bigarrenik, azken eskola praktikak bertan egin nituenez, eskola eta bertako ikasleak, iraskasle eta hauen ikuspuntu batzuk ere ezagunak ditut. Azkenik, konkretuago Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren maila aztertzearen arrazoia, lehen adierazi dudan bezala, bilakaera edo hobe esanda, etapa bakoitzan ezberdintasun adierazgarriak dauden aztertze da.

Honetaz gain, ikasle bakoitzari inkesta bat baino gehiago banatu zaio etxean bizi diren heldu orok bete ditzaten. Honen arrazoia argia da, ikaslearekin duen ahaidetasuna aldagai garrantzitsua iruditzen zaidalako, ez delako berdina ama batek, aita batek, amona batek edo aitona batek esan dezakeena eta guztiek ikaslearen egunerokotasunean garrantzia duten pertsonak izanik esatekoa dutena interesgarria iruditzen zait ikerketa honetarako. (Nahiz eta inkesta bakarra jaso dut etxe bakoitzetik, soilik batek bete dute).

#### *B. Ikerketaren aztergaia eta helburuak:*

Familiak, Eskola eta Komunikabideak haurren heziketan funtzesko hiru eragileak dira eta hiru eragiletako batean zentratu (familia kasu honetan) eta biren arteko(familia-eskola) harremana aztertzea familia aniztasunaren gaia lantzeko oso lagungarria da ikaslearen errealitatea ezagutu eta aztertze. Bestalde ikasleen errealitatea zein den zehatzago ezagutzea irakasle lanaren eginbehar garrantzitsuenetako bat dela uste dut eta irakasle bezala ekarpen garrantzitsuak egin ditzake inkesta honek, egunez egun ondoan ditugun ikasleen errealitatea ezagutzeko baita hauen familiaren egoera, izan ere lehenengo sozializazioaz harduratzen den talde nagusia da eta bizitza osoan eragina eta harremana duen eragilea da. Eta are garrantzitsuagoa, familiek ahotsa dute, aktiboak egiten dira inkesta honetan eta haien ikuspuntua plazaratzen dute.

Ikerketa honen aztergaia Nafarroako Iruñeko Alde Zaharreko Frantzisko Deunako Lehen Hezkuntzako familia aniztasuna (eredu eta egoera ezberdinak) da.

Gaia ulertzeko bestalde, zenbait kontzeptu definituko ditut, teoriarik landu ditudan kontzeptuak beharrezkoak izan zaizkit:

Familia :afektibitate eta emozio loturak dituzten pertsonak biltzeko modu bat da, baina ez dago modu bakarra pertsonak biltzeko sistema honetan, baizik eta aniztasuna ematen dela kontzeptu honetan, familiak ugariak eta ezberdinak dira; familia kontzeptuak ez dauka esanahi bakar eta erabatekorik. Gaur egun, aita-ama eta seme-alaba biologikoek eratzen duten taldea baino zerbait gehiago dira familiak.

Familiaren eginkizunak: zainketa eguneroko bizitzan, eginkizun afektibo eta emozionala, hezkuntza funtzioa, sozializatzeko funtzioa, babespen funtzioa, sexu eta ugalketa funtzioak, aisialdi funtzioa, erlijio funtzioa...

Sozializazioa: gizakiak gizartekoiak garenez, komunitate bateko ezaugarriak, bizimoduak barneratzeko etengabeko prozesu bat izaten dugu; zeinaren bitartez giartea denboran zehar birsortzen da.

Familia ereduak: Familia eredu ezberdinetaz hitz egiten dugunean egituraren sailkapen batez ari gara. Familia egitura ezberdinak daude familia hauek zein pertsonak osatzen dutenen arabera baita elkarreko harreman hauek zein modutan eraiki eta sortu direnen arabera. Eredu hauek ezberdintzen ditugun, garrantzitsua da jakitea familia bakarra eredu bat baino gehiagotan koka daitekeela.

- Familia hedatua: (seme-alaba, guraso, aiton-amona)
- Familia nuklear funtzionala: gurasoek eta seme eta alabek osatzen dutena (etxe berdinean)
- Gurasobakarreko familiak: guraso batek eta seme-alabek osatzen dutena
- Izatezko bikotea: ezkondu gabeko bikote iraunkorra eratzen dute
- Familia berreraikiak: harremana hautsi eta gero beste familia eraikitzean
- Adopzio familiak: seme-alabak adoptatu dituzten familiak
- Familia homoparentalak: sexu bereko bikoteek osatzen dutena
- Etorrinen familiak: beste lurralde batetik etorritako familiak.

Eskola inklusiboa /Aniztasuna: Ikasleen artean ezberdintasun asko dago bai genero, kultura, erlijio, familia, trebetasun.... aldetik beraz ,ikasleen arteko aniztasun ezberdinetaz hitz egin dezakegu, kasu honetan familia aniztasunaz (familia egoera eta



eredu ezberdinetaz). Eskola bat inklusiboa izango da baldin eta aniztasun guztiak onartu eta tratamendu egokia ematen badie hauei, aniztasuna landuz eta modu kolektibo batean hontatik ikasiz.

Talde elkarreragileak: dinamika berritzaile bat da non, eskolaz kanpoko bolondresek berebiziko garrantzia duten. Gela bakoitzean lau bolondres sartzen dira (askotan familiak dira) eta bakoitza txoko baten arduraduna izaten da, tutoreak txoko hauek kordinatzen dituelarik. Honek aukera ematen du txoko bakoitzean lau-bost ikaslek modu intentsiboan lan egiteko eta 20 minutu pasa eta gero hurrengo txokora pasatzen dira.

Aukera teknikoak:

Lagina, Iruñeko Alde Zaharreko Frantzisko Deunako D ereduko Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako ikasleen familiak dira (ez guztiak baizik eta maila bakoitzan gela bateko familiak hartu direlarik).

Bertan bai galdera kuantitatibo (adibidez; zenbat denbora ematen duzu zure seme-alabarekin) zein kualitatiboak (adibidez; nola baloratzen dituzu zure seme-alabaren emaitza akademikoak) dute lekua. Aipatutako aldagai horietaz gain, inkestak 15 galdera ditu, batzuk erantzun itxia dutenak (aukera anitzeko galderak edo bai-ez erantzutekoak) eta erantzunak graduatzea edo ordenatzea eskatzen duten galderak (1, 2, 3, 4) eta besteak erantzun irekiagoa dutenak (haiek idatziz erantzun beharko dituztenak, adibidez: zure familia ereduaren abantailak eta desabantailak?).

Galdera asko erantzun itxia dutenak dira, izan ere 60 inkesta pasatzerakoan eta ondorioak ateratzeko beharrezkoa da orokortzea erantzun mota hauek eta grafiko zein taulatan erraz ikusten dira hauen erantzunak taldeka.

Eta erantzun irekiagoa eskatzen duten galderak interesgarriak dira gai honek eskatzen duelako familien ikuspuntua ez mugatzea erantzuna konkretu batera zenbait kasutan, baizik eta haien ikuspegia ulertzen eta sentitzen duten moduan adieraztea, inkestak inongo mugak jarri gabe.

Helburu konkretuagoak hauek dira:

1. Lehen Hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako klaseetan dauden familia ereduak erregistratu eta aztertzea.

2. Familia eredu konkretu bakoitzak, zein abantaila eta desanabtaila dituzten.
3. Familien iritzia eta jakintasun edo ezjakintasuna, eskolan familia aniztasunaren inguruan egiten den lanketaz.
4. Lanketarik egiten den etxean familia aniztasunaren inguruan eta nolakoa den.
5. Familien ustez, haurrek duten jarrera familia aniztasunaren inguruan (bere familia eta beste familiekiko) eta zein egoerak kostatzen zaien gehiago ulertzea.
6. Aiton amonaren papera aztertzea.
7. Familia mota eta honek haurrarekin duen inplikazioak zein eragina duen emaitza akademikoetan.
8. Familia mota eta honek haurarekin duen inplikazioak zein eragina duen haurraren sozializazioan.
9. Familia eta irakaslearen artean dagoen harremanaren inguruan familiek dituzten ikuspuntuak
10. Talde elkarreragileetan duten partaidetza aztertzea, eta honengan duten interesa edo interes eza eta jakintasuna.
11. Familia aniztasunean, honen trataeran eta eskola-familia harremanean dauden aldaketak kurtsoaren arabera.

*D. Gaiaren inguruan burutu diren ikerketak eta dagoen informazioa:*

Gairen inguruan dagoen informazio teorikoa aztertzeko alor teorikoan azaldu dudana bezala asko dira gai honen inguruan hitz egiten dutenak.

Behin oinarri teoriko bat izan dudala ikerketa jorratzerako orduan egin diren ikerketak aztertu eta zenbaitetan abiapuntu gisa baliogarriak izan zaizkit. Hauek izan dira lagungarri ikerketa abiatzeko. *Elkarbizitza planaren inkesta "egunez egun hobetuz"* (Plentziako eskola 2010), *Encuesta para padres sobre participación familiar en la escuela* (Departamento de Educación de Georgia 2012), *Encuesta dirigida a los padres de familia* (Colegio San Roque, Alicante 2008), *Cuestionario para las familias* (Junta de Andalucía, 2012), *Encuesta para padres de familia/ Apoderados de primaria* (Ministerio de educación de Perú).

Dena den aipatzekoa da zailtasunak izan ditudala nire gai konkretua lantzeko inkestak, galdetegiak edo ikerketak aurkitzeko, izan ere akaso oso zehatza da nik aukeratutako gaia (egia da familia-eskola harremanaren inguruan ikerketa izugarri dagoela baina familia aniztasunean zentratuz ez horren beste); beraz daukadan informazio teorikoarekin eta aztertutako ikerketa eta inkesta motetatik lortu dut nire ikerketa eta nire inkesta garatzea.

Eskola gehiengoak egiten dituzte ikerketa txikiak familiaren partaidetzaren inguruan baina ez nik nahi nuen gaia aztertuz, familia aniztasuna, baizik eta elkarbizitza plan batera bideratua gehinengo kasuetan.

Informazioa eta beste ikerketek esan dezaket hainbat aspektutan lagundu didatela: gaiaren ezagutza handitzen, helburua eta berezitasunak hobezehazteko, hipotesi hobeak izateko, besteen esperentziak erabiltzeko aukera izan dudalako...

Helburuen garapena:

Hau da errealiteri buruz aurreikusten duguna eta jarraian agertuko diren hipotesiak frogatzen saiatuko gara ikerketa honen bidez:

- Familia aniztasunari dagokionez inkestari erantzungo dioten familien erdia familia tradizionalak (nuklear funtzionala) izango dira eta beste erdia beste familia eredutan banatzen da.
- Guraso bakarreko familietan aiton amon eta beste helduen garrantzia eta partaidetza altua da.
- Lehen hezkuntzako bigarren, laugarren eta seigarren mailako ikasleak, behar, kezkak, ezaugarriak oso ezberdinak direnez, eta klasean eduki ezberdinak lantzen dituztenez. familiaren partetik dagoen inplikazioa eta ikuspuntua ezberdina izango da familia aniztasunari eta tratamenduari dagokionez.
- Familia motak ez du eraginik emaitza akademikoan ezta haurraren sozializazioan. Baina bai honen inplikazioak, eskolarekin, haurrarekin edo auzoarekin.
- Familia-irakaslearen arteko harremanak eragina du ikaslearen sozializazioan eta emaitza akademikoetan.

- Familia gehiengoak ez dakite eskolan familia aniztasunaz egiten den lanketa nolakoa den.
- Familia tradizionaletik desberdintzen diren beste ereduak gehiago harduratzen dira familia aniztasunaz eskolan egiten den lanketaz baita haiek etxean lanketa egiteaz.
- Ikasleen gehiengoak normalastasunez ikusten dituzte familia eredu ezberdinak baina gehien harritzen dituzten familia ereduak homoparentalak dira.
- Ikasleak txikiagoak direnean normaltasun osoz ikusten dituzte familia eredu eta egoera ezberdinak, eta ez dira horrenbeste harritzen. Helduagoak, ordea, bideratuagoak daude eta ohiko eredutik ateratzen den oro, ez dute normaltasunez ikusten.
- Talde elkarreragileekiko interesa handia da baina denbora faltak eta sentitzeak klase barruan familiak ezer gutxi egiteko dutelak eragiten du parte hartze aktiboa txikia izatea.
- Ikasle gutxi dira bere familia “ezberdina” dela sentitzen dutenak.
- Familia gehiengoak ikasleen emaitza akademiko txarren aurrean irakaslearengana joko lukete eta ikasleek harreman arazoak izatekotan, ordea, ikaslearengana.

Ikerketan kontuan hartuko diren aldagaiak honakoak dira:

Familiei buruzko aldagaiak:

- sexua
- adina
- lan egoera
- euskararen ezagupena
- seme alaba kopurua
- familia motak: egituraren arabera
- haurrarekin daukan ahaidetasuna
- ikasketa maila

Haurrari buruzko aldagaiak:

- familia mota
- anai-arreba kantitatea
- kurtsoa
- aiton-amonak edukitzea

Inkestaren aldagaiak:

- emaitza akademikoaren balorazioa
- ikaslearen harremanatzeko arazo motak
- Familiaren aniztasunaren lanketaren ezagupena
- Familia motak gaizki sentiarazteari buruzko iritzia
- Familia ereduakiko harridura
- familia aniztasunari buruzko aipamena
- familia ereduaren balorazioa
- tutorearekiko harreman mota
- familia-tutorearen arteko elkarlanaren balorazioa
- ikaslearekin dagoen denbora
- beste pertsonen beharraren balorazioa
- aiton amonekin dauden egoerak
- talde elkarreragileen ezagupena
- emaitza akademiko txarrak izatekotan norengana jo
- sozializazio arazoak izatekotan norengana jo

*E. Aukera metodologikoen azalpena: teknika kualitatibo eta kuantitatiboen zehaztapena.*

Diseinua erabakitzeko eragina duten zenbait faktoreen artean helburuaren arabera esplikatzailea da nire ikerketa: hipotesiak frogatzeko eta aldagai batek bestean duen eragina frogatzeko egindako ikerketa da zehazki. Kasu konkretu baten azterketa.

Hasteko eskolako kontuetan familiak duen partaidetza baita familia barruko gaien inguruan egindako ikerketetan jarraitutako galdera moten azterketa egin zen. Galderak egiteko modua aztertu eta erabilgarria izan zitekeena aukeratzeko.

Ondoren, formatu idatziko inkesta egitea aukeratu nuen. Lortu nahi ziren datuak eta inkestaren helburuak kontuan izanik, inkesta galdera kuantitatibo, zein kualitatiboz osatua dago, familiaren ikuspegia bilduko zuen informazioa lortzeko asmoarekin. Inkesta asko banatuko direnez, erabilgarriago da erantzunak bateratzeko eta ondorioak ateratzeko metodo hau erabiltzea.

Inkesta ikastetxera eraman aurretik ezagunak nituen gurasoekin testeatu nuen, zuzendu, hobetu eta erabakiak hartzeko.

Inkestak 14 galdera ditu, batzuk itxiagoak dira (aukera anitzekoak) eta beste batzukordea, galdera irekiagoak dira, non haien erantzuna idatzi behar duten.

Jarraitzeko, behin inkesta osaturik zegoela eskolari baimena eskatu eta inkesta bidaltzeko eguna adostu zen. Lehen adierazi bezala, ikastetxeko D ereduko Lehen Hezkuntzako bigarren laugarren eta seigarren mailako ikasleen familiei pasa zitzaien inkesta. Zehazki bigarren mailako klase bateko familiei, laugarren mailako beste klase bateko familiei eta seigarren mailako beste klase bateko familiei. Klaseak ausaz aukeratu dira. Nik zuzendariari azaldu nion inkestak nori bete behar zuen zertxobait gaia aurkeztuz (ikasleek jakitea interesgarria iruditzen zitzaidan) baita zenbait aspektu formal nola bete behar zen eta ekartze data. (nolabait ikasleak parte hartzeko modu bat izan da). Eta zuzendariak tutoreei banatu dizkie inkestak. Tutoreek hau guztia azaldu eta familiei korreo bana bideli dizkie hau azalduz. Eta ikasle bakoitzari behar zituen inkestak banatu zitzaizkien (bere etxean bizi diren heldu kantitatearen arabera).

Asteburua pasa eta gero, astelehenean inkestak jasotzera joan nintzen.

Behin inkestak eginik, datuen bilketa egin nuen, eta honekin batera eta datu adierazgarrienak zein ziren kontuan izanik datuen antolaketa taula zein beste

euskarrietara pasa nuen. Azkenik, informazioaren azterketa egin eta hauetatik ateratako ondorioak zehaztu ziren.

## 5.2. Emaitzen azalpena eta balorazioa

Erantzun mailari buruz beharrezkoa da esatea banatu diren inkesta kantitatea, 60 inkesta izan direla, Frantzisko Deunako D ereduko Lehen Hezkuntzako 2. mailako gela bateko familiei, 4. mailako beste gela batean eta 6. mailako beste gela batean. Eta 41 inkesta jaso dira.

**Taula 1.** Jasotako inkestak generoaren arabera


KURTSOA	AMA		AITA		GUZTIRA
2. maila	11	%84,6	2	%15,4	13
4. maila	6	%66,6	3	%33,4	9
6. maila	14	%73,7	5	%26,3	19
<b>Guztira</b>	<b>31</b>	<b>%75,6</b>	<b>10</b>	<b>24,4</b>	<b>41</b>

### FAMILIA ANIZTASUNA:

Aztertu den lehenengo gauza izan da ea egia den geletan familia aniztasuna ematen dela eta haur bakoitzak egoera eta eredu ezberdinetan kokatu daitezkeela edo familiak eredu berdinekoak diren.

**Taula 2.** Familia ereduak mailaren arabera

FAMILIAK	2.MAILA		4. MAILA		6.MAILA		GUZTIRA	
Zabala	3	%7,3	5	%12,2	6	%14,6	<b>14</b>	<b>%34,1</b>
Nuklear	5	%12,2	4	%9,7	4	%9,7	<b>13</b>	<b>%31,7</b>
Guraso bakarrekoak	1	%2,4	0	0	5	%12,2	<b>6</b>	<b>%14,6</b>
Izatezko bikotea	2	%4,8	0	0	3	%7,3	<b>5</b>	<b>%12,2</b>
Berreraikia	0	0	0	0	0	0	<b>0</b>	<b>0</b>
Adopzio	2	%4,8	0	0	1	%2,4	<b>3</b>	<b>%7,3</b>
Homoparentala	0	0	0	0	0	0	<b>0</b>	<b>0</b>
Etorkinena	1	%2,4	0	0	0	0	<b>1</b>	<b>%2,4</b>

**1. Grafikoa.** Familia ereduaren protzentaia

Taulan bi aldagai gurutzatzen dira, batetik familia ereduak eta bestetik ikasleen maila. Zortzi familia eredu ezberdintzen ditugu: zabala, nuklear, guraso bakarrekoak, izatezko bikotea, berreraikia, adopzio, homoparentala eta etorkinena. Eta hiru maila ezberdinetakoak dira ikasleak: bigarren, laugarren eta seigarren.



Ehunekoak ematerako orduan, zera azaldu da: 41 familietatik ehuneko zenbatek kokatzen duten bere burua familia mota bakoitzean bai guztira, baita mailaren arabera ere.

Lehen familia nuklear funtzionala, familiaren definizio bakar gisa ulertzen zen eta aztertu dezakegu 41 familietatik 13 kokatzen direla eredu horretan. Familia zabalaren eremuan, 14 kokatzen dira eta beste 15 familia beste eredutan banatzen dira: guraso bakarreko familiak, izatezko bikotea, adopzio familia eta etorkinen familia.

Beraz argi ikus daiteke nola familien herena kokatzen diren orain arte gutxiestuak zeuden familia ereduetan, eta normalean eskoletan lantzen ez ziren (edo modu okerrean lantzen ziren) familia ereduak dira, gutxienez orain arte.

6.mailako gelan zentratzen bagara, guraso bakarreko familien kopurua, familia nuklearren kopurua baino altuagoa da, beraz klasean familiaren gaia lantzen dutenean bai modu zuzenean bai zeharkako moduan, familia =familia nuklear bezala ulertzen bada, ikasle gehiago geldituko dira eredu horren kanpo, haiek bizi ez duten errealitate bat lantzen, eredu horren barruan dauden familietan dauden ikasleak baino.

Familia zabalaren kopurua baita altua da, ohartzen bagara ehuneko herena baino gehiago kokatzen da familia eredu honetan.

Kasu honetan azpimarratu nahi dut aiton-amonen papera, izan ere familia hauek erantzun dutenaren arabera kasu gehienetan ez daude bakarrik aisialdirako baizik eta egunero edo ia egunero orduak pasatzen dituzte elkarrekin; ikasleen heziketan paper garrantzitsua edukiz. (aurrerago ikusiko dugu nola familia gehiengoak norbaitengana jo behar dutenean aiton-amonak oso oso presente daudela). Izan ere, aiton amonen paperaren garrantziak bilakaera jasan duen aspektu bat da.

Familiaren gaia lantzen hasi zenean asko izan ziren, defendatzen zutenek familia nuklear funtzionalaren eredutik ateratzen ziren familia ereduak eragin negatiboa izan zezaketela bai haurraren emaitza akademikoetan baita haurraren sozializazioan ere, nolabait familia giro hori negatiboa zela haurrarentzat. Jarraian aztertzeraz goaz egia izan daiteen edo eraginik duen:

**Taula 3.** familia motaren arabera haurraren sozializazio arazoak

Familia ereduak	Sozializazio arazoak			
	Bai	Totalaren % (41 familia)	Ez	Totalaren %
Zabala	0+0+1=1	%2,4	3+5+6=14	%34,1
Nuklear	1+0+1=2	%4,8	4+4+2=10	%24,4
Guraso bakarrekoak	1+0+2=3	%7,3	0+0+3=3	%7,3
Izatezko bikoteak	0+0+2=2	%4,8	2+0+1=3	%7,3
Adopzio	1+0+0=1	%2,4	1+0+1=2	%4,8
Etorkin	0	0	1+0+0=1	%2,4
<b>Guztira</b>	<b>9</b>	<b>%21,9</b>	<b>33</b>	<b>%79,1</b>

Lehenengo batugaia: L.H 2. maila

Bigarren batugaia: L.H 4. maila

Hirugarren batugaia: L.H. 6. maila

**Taula 4.** familia motaren arabera haurraren emaitza akademikoen balorazioa

Familia ereduak	Emaitza akademikoak			
	Nahiko	Ongi	Oso Ongi	Bikain
Zabala	1+0+1=2	0+2+3=5	1+3+2=6	1+0+1=2
Nuklear	1+1+0=2	2+1+2=5	2+1+1=4	0+1+0=1
Guraso bakarrekoak	0	1+0+0=1	0+0+5=5	0
Izatezko bikoteak	0	0	2+0+2=4	0+0+1=1
Adopzio	0	1+0+0=1	1+0+1=2	0
Etorkin	0	1+0+0=1	0	0

Ditugun bi taula hauetan gurutzatzen diren aldagaiak hauek dira: batetik familia ereduak eta bestetik, lehenengoan sozializazioa edo berdinekin harremana eta bigarrenean emaitza akademikoak. Sozializazio arazoan taulan aukerak bi dira, sozializazio arazoak izatea edo ez izatea. Emaitza akademikoen taulan, ordea, eskolan erabiltzen diren parametroak erabili dira. Azpimarratu behar da erantzun hauek gurasoen ikupegitik kokatu behar ditugula, haiek izan baitira hau baloratu dutena; bere seme-alabak sozializazio arazoak dituen edo ez, eta nola kalifikatzen dituzten hauen emaitza akademikok.

Taulan hiru batugai ezberdintzen dira arrazoi konkretu batengatik: lehenengo batugaia Lehen Hezkuntzako 2. mailako klasetik ateratako erantzunak dira, bigarren batugaia 4. mailatik ateratako erantzunak eta 3. batugaia seigarren mailatik ateratako erantzunak.

Taulak aztertzen baditugu, lehenengo begiradan somatzen dugun lehenengo gauza aniztasuna da, baina sozializazio arazoan lehenengo taula zehatzago aztertuz zera antzematen dugu: batetik familia gutxi erantzun dute haien seme-alabek sozializazio arazoak dituztenik.

Bestetik, familia zabala eta nuklearrak batzen baditugu 27 familia ditugu eta horietatik 3k dute sozializazio arazoak eta beste eredu guztiak batzen baditugu (guraso bakarrak, izatezko bikoteak, adopzio eta etorkin) 14 familia ditugu zeinetatik 6k sozializazio arazoak dituzte.

Lehenengo kasuan ez da ehuneko hamarrera iristen eta bigarren kasuan ia erdia.

Emaitza akademikoen taula aztertuz, aniztasuna nagusi da. Familia gehienek haien seme-alaben emaitza akademikoak ongi eta oso ongi tartean kokatzen dituzte.


Beraz, hausnartu eta gero ondorio bat datorkit burura eta hurrengo da: emaitza akademikoetan dirudienez, ez duela eraginik zein familia eredutan kokatzen zaren.

Sozializazioan, edo besteekin harremanetan, ordea, eragina izan dezakeela pentsa dezakegu. Honi arrazoi bat bilatzen badiogu nik zera defendatzen dut: familia eredu hauek gizarteak eta eskolak nola lantzen dituen arabera, sor ditzake haur hauengan sozializazio arazoak. Beraz, ez dut uste familia eredu konkretu baten ezaugarri bat denik haien haurrek sozializazio arazoak izatea, baina bai familia aniztasuna behar den

bezala ez ulertu eta lantzea, eta eredu guztiek onarpena ez izateak eragina dauka haurren sozializazioengan (zehazki ahulago dauden familien haurrengan).

Hori nik ematen diodan azalpen posible bat da, dena den galdetzen diegunean gurasoei ea haien seme-alabek gaizki pasa izan duten sentitzeagatik daukaten familia "ezberdina" dela: 38k ezetz esan dute eta soilik 3k baietz esan dute.

## 2. Grafikoa. Haurrek gaizki pasa izana familia ezberdina izateagatik



Gutxi izan direnez baietz esan duten familiak, merezi du aztertzeak zein familia eredutan kokatzen diren hiru familia hauek: guraso bakarreko bi familiek erantzun dute baietz. Kontutan izan behar dugu gurasko bakarreko 6 familia daudela eta beraz, herenak adierazi duela bere seme-alabek gaizki pasa izan dutela haien familia eredu ez oikoa izateagatik. Eta gauza bera erantzun duen beste familia etorkinen familietan kokatzen den familia da.

Egia da batetik familien balorazioak direla eta ez haurrari egindako galdeketa zuzena baina nahiz eta horrela izan, gaur egun ikasleren bat gaizki pasatzen badu sentitzeagatik bere familia ezberdina dela, nik zera esan dezaket: nonbait familia aniztasunaren lanketan hutsuneren bat egon daitekeela. Izan ere ez dut hiru haur hauen arazo pertsonal bat bezala baloratzen baizik eta aniztasuna lantzeko guztion konpromezu bat bezala.

## FAMILIA ANIZTASUNARI BURUZKO LANKETA

Familien balorazioa bai eskolan baita etxean egiten den familia aniztasunari buruzko lanketaren inguruan:

**Taula 5.** Aniztasunaren lanketa eskolan

Aniztasun lanketa eskolan	BAI								EZ							
	2.maila		4.maila		6.maila		Guztira		2.maila		4. maila		6.maila		Guztira	
Familiek dakite familia aniztasuna lantzen den gai bat dela?	10	%24,4	6	%15	14	%34	<b>30</b>	<b>%73</b>	3	%7,3	3	%7,3	5	%12,	<b>11</b>	<b>%27</b>
Dakite nola lantzen den?	3	%7,3	2	%4,8	6	%15	<b>11</b>	<b>%27</b>	10	%24	7	%17	13	%31,7	<b>30</b>	<b>%73</b>

Taulan bi galdera planteatzen dira: batetik ea familiek dakiten eskolan familia aniztasuna lantzen den gai bat dela, eta bestetik ea dakiten nola lantzen den. Erantzuna baiezkoa edo ezezkoa da eta erantzun hauek taulan inkestak banatu diren hiru klaseen mailetan sailkatu dira: bigarren, laugarren eta seigarren mailan.

Emaitzak aztertuta ikusten dugun lehenengo gauza familien ehuneko 73ak badakiela familia aniztasuna klasean lantzen dela baina ehuneko 73ak baita ere, ez daki nola lantzen den.

Esan dezakegu ez dagoela orokorrean kezka garrantzitsu bat familien artean jakiteko familia aniztasunaren gaia sakontasunez nola lantzen den eskolan (orokorrean badakite lantzen den gai bat dela besterik ez): baina aipamen berezia merezi du aztertzeak zein familia diren nolabaiteko interes gehiago erakusten dutenak aspektu honetan izan ere, 41 familietatik 30ek badakite familia aniztasuna eskolan lantzen den gai bat dela eta

11k ez dakite ezta lantzen denik. 11 familia hauetatik 10 kokatzen dira familia eredu nuklear funtzionalean (6) eta zabalaren ereduan (4). Ezin da ondorio garbirik atera baina bai gutxienez aipatzea ohikoa ulertzen diren familia eredu horietatik ateratzen diren familia orok badakitela gaia lantzen dela, nolabaiteko arduraren isla akaso.

Nahiz eta gehiengoak jakin gaia lantzen dela 30 familiek ez dakite zelako lanketa egiten den, 11 izanik informazio honetaz arduratu diren familia bakarrak ( familia zabaleko 4, nuklearreko 2, adopzio familiaren ereduan kokatzen diren 2 familia eta guraso bakarreko familietan kokatzen diren 3k). Guraso bakarreko familien erdiak badaki egiten den lanketa, eta adopzio familien bi herenak gauza berdina. Familia eredu nuklear eta zabalaren ezta herena ere ez daki, nolabait erosotasunaren isla.

Pentsa dezakegu modu orokorrean irakasleek ez dutela familiengana jotzen gai honi trataera ematerako orduan, ezta familiek irakasleengana, bestela gehiengoak jakingo luke zelakoa den egiten den lanketa. Eta ez al da interesgarria gai hau haurren errealitateak erabiliz lantzea? Ikasleen ahotsak entzunez eredu, egoera ezberdinak landu ahal dira baita ezaugarri asko ere.

Beste arrazoi bat izan daiteke familiek irakasleekiko duten konfidantza, gaian inplikatzeko beharrik ez ikustean, nolabait fidatzen dira irakasleak klase barruan lantzen duenaz: izan ere galdetu denean ea norantza antzekoan doazten familiak eta tutoreak haurren hezkuntzan: guztiek bai, nahikoa edo guztiz erantzun dute: 13k nahikoa eta besteak guztiz. Baina gaian inplikatzeko oso onuragarria izango litzake guztientzat.

Gaia nola lantzen den dakiten 11 familietatik soilik 3k adierazi dituzte ikusten dituzten hutsuneak: bik bide berdinean doaz, gaia lantzerako orduan haurren egoera jakin behar dela, guztiek eroso sentitzeko eta adibide pertsonalak lantzea. Hau ikusita ondoriozta dezakegu familia aniztasunaren gaia nola lantzen den dakiten familien artean gehiengoak ez dituela hutsunerik somatzen. Baina oso gutxi izan dira galderari erantzun dioten familiak, akaso azaldu dugun irakasleekiko konfidantzaren seinale.

Etxean familia aniztasunaz egiten den lanketaren inguruan zera esan dezakegu:

**Taula 6.** Aniztasunaren lanketa etxean

Aniztasun lanketa etxean	BAI							EZ								
	2.maila		4.maila		6.maila		Guztira	2.maila		4.maila		6.maila		Guztira		
Noizbait hiz egin duzu seme-alabarekin dagoen familia aniztasunaz?	9	% 21,9	8	%19,5	16	%47,5	<b>33</b>	<b>%80</b>	4	%9,7	1	%2,4	3	%7	<b>8</b>	<b>%19,5</b>
Haurrak normaltasunez ikusten ditu?	8	%19,5	8	%19,5	16	%47,5	<b>32</b>	<b>%78</b>	0	0	0	0	0	0	<b>0</b>	<b>0</b>

Taula honetan bi galdera planteatzen dira etxean familia aniztasunaren inguruan egiten den lanketa aztertzeko. Batetik, ea noizbait hitz egin dzen seme-alabekin dagoen familia aniztasunaz eta bestetik haurrak normaltasunez ikusten dituen familia eredu ezberdinak. Erantzuna baiezkoa edo ezezkoa da eta taula sailkatua dago ikasleen hiru mailetan.

41 familietatik 32k noizbait hitz egin dute dagoen familia aniztasunaz (eredu eta egoera ezberdinetaz) eta 9k ez, inoizez. Aztertzen baditugu zein familia eredu izan diren inoiz ez dutenak gaiaz hitz egin zera ikusten dugu: 5, familia nuklearraren ereduan kokatzen dira eta 4, familia zabalari, nolabait ohikoen diren eredutan kokatzen diren familiak.

Eredu hauek ez diren beste motetan kokatzen diren familien erantzunak aztertzen baditugu, ikusten dugu ehuneko ehunek hitz egin dutela etxean dagoen familia aniztasunaz.

Hau ikusita ondoriozta dezakegu: haurraren egoera partikularra ez denean orain arte familia eredu bakarra ulertzen ez den beste batean kokatzea, ez dutela beharrezkoa ikusten inguruan dagoenaz hitz egitea. Izan ere eredu horretatik ateratzen diren familia guztiek hitz egin dute hurrekin gaiaren inguruan, akaso gehiago arduratzen dituelako

gaiak, haien egoera orain arte “ezberdintzat” ulertzen zelako edo nolabait aniztasunaren ardura eta konzientzia handiago delako.

Gaiak hitz egin duten familien artean guztiek baloratu dute hurrek normaltasunez ikusten dituztela eredu eta egoera ezberdinak. Nolabait hurrekin edozertaz hitz egiten baduzu ulertzeko kapazak dira, haurrak ez dira jaiotzen jakinda zeintzuk diren dauden familia ereduak edo zeintzuk dauden hobe ikusitak baizik eta gizarteak, eskolak eta familiek bidaltzen dizkieten mezu esplizitu zein inplizituenganidk jasotzen dute informazio hori.

Nahiz eta normaltasunez ikusten dituzten egoera eta eredu ezberdinak egia da gauden gizarteagatik oraindik eredu batzuk harritzen dituzte haurrak:

11 familiek erantzun diote haurrak zein egoerak harritzen dituzten gehien edo hurrek egindako aipamen berezien inguruan eta hamaika familia horietatik 7k aipatzen dute haien seme alabei familia homoparentalak direla gehien harritzen dituenak. Beste kasuetan guraso bakarrarekin bizitzea edo familia senide asko (aiton amonak barne) elkarrekin bizi diren familiak. Eta aipamen berezien artean bakarra positiboa izan da, familia batek adierazi duela bere seme-alabak egiten dituen aipamenak positiborako direla: bakoitzak nahi duenarekin egotea eta bata ez dela bestea baino hobea.

Honekin argi esan dezakegu familia anaiztasuna oraindik normalizatua ez dagoela eta gehiago landu ahal den gai bat dela. Adbidez, eskoletan hau sakontasunez aztertuko balitz kasu honetan familia homoparentalak hobeto lantzeko beharra somatuko lukete.

#### FAMILIEN INPLIKAZIOA:

Jarraian, familien inplikazioa familia motaren arabera eta inplikazioak sozializatorako duen eragina aztertzen da:



**Taula 7.** Familia mota eta auzo-eskolako ekintzen parte hartzea

Familia ereduak	Auzoko ekintzetan parte hartu				Eskolako ekintzetan parte hartu			
	BAI		EZ		BAI		EZ	
Zabala	10	%24,4	4	%9,7	9	%21,9	5	%12,2
Nuklear	9	%21,9	3	%7,3	8	%19,5	4	%9,7
Guraso bakarrekoak	5	%12,2	1	%2,4	4	%9,7	2	%4,8
Izatezko bikoteak	3	%7,3	2	%4,8	4	%9,7	1	%2,4
Adopzio	3	%7,3	0	0	3	%7,3	0	0
Etorkinenak	0	0	1	%2,4	0	0	1	%2,4
<b>Guztira</b>	<b>30</b>	<b>%73,2</b>	<b>11</b>	<b>%26,8</b>	<b>28</b>	<b>%68,3</b>	<b>13</b>	<b>%31,7</b>

Taulan erantzunak jaso dira familia ereduaren arabera bai auzoko ekintzetan parte hartzen duten edo ez, eta eskolako ekintzetan parte hartzen duten edo ez.

41 familietatik 30ek parte hartzen dute auzoko ekintzetan eta 28k eskolako ekintzetan. Parte hartze altua ondorioztatzen da orokorrean (auzoan eskolan baino zertxobait gehiago). Ezin dugu ondorioztatu familia motaren arabera auzoko zein eskolako partehartze maila altuago edo txikiago dela baina bai ikusten da parte hartze altua.

Garrantzitsua da ikaslearen familia ezagutzea eta interesgarria izan daiteke ikaslearen familia zein giroan mugitzen den. Are gehiago Frantzisko Deuna eskolako familientzat, dirudienez, garrantzia baitauka auzoko bizitzak. Ikasle nahikotxok, ordu asko ematen dituzte eskola ondoko parkean edo auzoan familiekin.

Datuak ikusita interesgarria da aztertea sozializazio arazoak dituzten haurren familien parte hartzea bai eskolan baita auzoko ekintzetan ere.

**Taula 8.** Sozializazio arazoak dituzten familien partehartzea

	Auzoko ekintzetan parte hartu		Eskolako ekintzetan parte hartu	
	BAI	EZ	BAI	EZ
Sozializazio arazoak dituzten haurren familiak	2	7	3	6

Bederatzi dira sozializazio arazoak dituzten haurren familiak, zeinetatik zazpi ez duten auzoko ekintzetan parte hartzen, eta sei ez dute eskolako ekintzetan parte hartzen.

Gogoratu behar dugu hamaika familia direla parte hartzen ez duten familiak, beraz hamaika familietatik zazpi kokantzen dira sozializazio arazoak dituzten haurren familien artean. Eskolako parte hartzearekin anzteko gertatzen da.

Pentsa dezakegu harremana dagoela sozializazio arazo eta partehartzearen artean: nolabaiteko eragina duela familiaren partehartzea bai auzoan bai eskolan, ikaslearen sozializazioan, eskolatze inklusibo baterako besteekin harremanak izugarritzko garrantzia duelarik. Hau kontutan izanda familia eredu ez, baina familiaren inplikazioak duen eragina azpimarratu nahi dut. Izan ere alde batean gelditzen da zenbait familia eredu eragin negatiboa daukatela haurren errendimenduaren ideia, izan ditzakeena eragin negatibo edo positibo familiaren inplikazioa eta partaidetza da, eta antzaenez inplikatu sentitzen diren familiak eredu nuklear eta zabaletik ateratzin diren familiak direla.

Arrazoi ezberdin asko egon daitezke eskola zein auzoko ekintzetan parte ez hartzeko, nahi ez izateaz gain: gurasoen lana, denbora falta... baita familiek talde finkoak dituztela beste familiekin. Akaso ez baduzu beste familiekin harreman hori zailagoa da parte hartze hori.

**Taula 9.** talde elkarreragileak

	Talde elkareragiletan parte hartu		Zertan datzan jakin		Zerbait irakasterik klase barruan?	
	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Famili ereduak						
Zabala	1+0+0=1	2+5+6=13	3+2+5=10	0+3+1=4	1+2+3=6	2+3+3=8
Nuklearra	0	5+4+3=12	3+3+2=8	2+1+1=4	1+2+2=5	4+2+1=7
Guraso bakarrekoak	0+0+3=3	1+0+2=3	1+0+5=6	0	1+0+5=6	0
Izatezko bikoteak	0+0+1=1	2+0+2=4	1+0+3=4	1+0+0=1	0+0+3=3	2+0+0=2
Adopzio	1+0+0=1	1+0+1=2	2+0+0=2	0+0+1=1	2+0+0=2	0+0+1=1
Etorkin	0	1+0+0=1	0	0+0+1=1	0	1+0+0=1
<b>Guztira</b>	<b>6</b>	<b>35</b>	<b>30</b>	<b>11</b>	<b>22</b>	<b>19</b>

Lehenengo batugaia: L.H 2. maila

Bigarren batugaia: L.H 4. maila

Hirugarren batugaia: L.H. 6. maila

Taula honetan familia mota ezberdinak talde elkarreragileekiko duten jarrera aztertzen da batetik familia eredu ezberdinak ditugu, eta bestetik hiru galdera: talde elkarreragiletan parte hartzen duten edo ez, zertan datzan dakiten edo ez eta klase barruan haiek zerbait irakasterik duten uste duten edo ez.

Taularen lehenengo begiradan erraz ikus dezakegu 41 familietatik 6k parte hartzen dutela talde elkarreragileetan, zeinetatik bost, nuklear eta zabalaren eredutatik ateratzen diren. 3 familia guraso bakarreko eredutan kokatzen dira; kontutan izanda guraso bakarreko 6 familia ditugula, erdiak talde elkarreragileetan parte hartzen du.

Orokorrean, talde elkarreragileen partaidetza txikia da guraso bakarreko familiek datua, familia hauen inplikazio altuaren seinale izan daiteke.

Harritzen nau izan ere bakarrik haiek haien hurrekin bizi dira, lan egin behar dute, eta denbora ateratzen dute honetan parte hartzeko, hau da arduraren seinale. Izan ere parte hartzen ez dutenen artean: hizkuntza eta denbora falta gehien bat dira arrazoi kopurutsuenak (ehuneko 70ek).

Interesgarria da aipatzea talde elkarreragileetan parte hartzen dutenen artean 4 direla 6. mailako klasekoak; pentsa genezake familientzat zailago dela zerbait erakustea handiago diren hurrei, baina ez da kasua, nahia eta jarrera aktibo eta positiboa da garrantzitsuena.

Familia gehiengoak (30ek) badakite talde elkarreragileen dinamika zertan datzan, eskolaren lan onaren seinale.

Gutxi gora behera familien erdia dira uste dutenek ez daukatela ezer irakasterik klase barruan : 19 familia eta baietz 22. Uste dut datu hau denborarekin aldatu dela, izan ere lehen bereizketa nagusia egiten zen irakaslearen funtzioen arabera (irakastea) eta familiaren funtzioak (zaintzea, hezte...) eta orain hauek, bi instituzioei dagozkien ardurak dira; familiek badute zer irakasterik aspektu askotan eta irakasleek badute zainketa eta beste zenbait aspektutan hardura eta inplikazioa.

Interesgarria da aipatzea familia zabala eta nuklearretan gehiago direla ezer irakasterik ez dutela uste duten familiak, baietz uste dutenak baino eta beste familia eredu guztietan kontrakoa gertatzen da, gehiago dira baietz zerbait irakasterik dutela klase barruetan uste duten familiak, ezetz uste dutenak baino. Familia zabala eta nuklearrak batzen baditugu 26 ditugu, eta horietatik hamaiketik uste dute badutela zer irakasterik (ehuneko 42,3). Beste eredutan 15 familia ditugu zeinetatik hamaiketik uste dute badutela zer irakasterik (ehuneko 73,3).

Orokorrean familia gehienak beren lan egoera (lan eza) eta etxean bizi diren pertsona kantitatea dela eta, ez dute kanpoko inorengana jo behar hurrekin gelditu dadin.

Baina familia eredu ezberdinen arabera aztertzen badugu aldagai honek harritzen nau, izan ere uste nuen guraso bakarreko familien gehiengoak izango zela beste

norbaitengana jotzen dutenak baina guztiz kontrakoa izan da: 6 familietatik bakarrak jotzen du norbaitengana eta beste familia eredutan gutxi gora behera heren batek jotzen du beste norbaitengana eta bi herenek ez. Berriz ere aipatzekoa aiton-amonen papera, gehiengoak aiton-amonengana jotzen baitutelako nahiz eta zenbaitek dira lagun, bizilagun edo beste haurren familiengana jotzen dutenak ere.

#### FAMILIA EREDU BAKOITZAREN ABANTAILA ETA DESABANTAILAK:

Familia eredu ezberdinetan familia bakoitzak zein abantail eta desabantail ikusten dituen aztertzea interesgarria iruditzen zait. Familia bakoitari, bere familie eredu eta egoera dela eta zein abantail eta desabantail dituen galdetu zaie

Jaso diren erantzunak hauek izan dira:

Familia zabala:

- Abantailak: beti baduzu norbaitengana jotzerik. Ez hezitzea bakarrik umeak baizik eta pertsona gehiagoren artean. Giro egonkorra. Umeekin denbora pasatzea. Aniztasunaz gozatzeko aukera eta asko izatea, familiaren laguntza. Estamos muchos y se ve mucha alegría, tener muchas personas. Ayudan cuanto te hace falta sin pedir nada a cambio.

- Desabantailak: todos en paro.

Nuklear:

-Abantailak: familia normalak izatea (lau pertsonak), haiek eraikitakoa dela, bakoitzak hardura ezberdinak ditu, eta konplementazioa. Hay relación diaria, necesidades básicas cubiertas, familia atenta a la educación de los hijos, buena salud, responde al tipo de familia normal. Denak elkarrekin gaude.

-Desabantailak: aniztasun falta, ez izatea familia hurbil hiri berdinean. Respecto al aprendizaje de nuestros hijos, no vivir una situación diferente puede hacerles pensar que lo que no es igual a lo nuestro no es normal. Berdinak izatea (bestearen norantza berdinean). Komunikazio falta.

Guraso bakarreko familiak:

- Abantailak: ausencia de broncas y malas palabras. Maitasun izugarria norbera ongi egon behar du. Eredu desberdina, berria, freskoa, kulturantzekoa, inplikatu.
- Desabantailak: aitaren falta, ausencia de intercambio de opiniones sobre elementos muy importantes en la educación del hijo. Ekonomikoak (bi pertsonak). Gutxiengo eta ez normalizatu egotea.

Izatezko bikoteak:

- Abantailak: erabaki pertsonal bat izatea. Aita eta ama egunero ikusi.
- Desabantailak: Legalki . Gurasoen arteko eztabaidak, kotnrako aginduk.

Adopzio familiak:

- Abantailak: laguntza, kolaborazioa, inplikazioa
- Desabantailak: ikuspuntu ezberdinen aurrean akordioetara iristeko zailtasunak .

Etorkinen familia:

- Abantailak: estabilidad, confianza, amor, somos padres involucrados.

Lehenengo gauza aipatzea, hau izango zela nik haurrekin egingo nukeen galdera irakasle bezala, familiaren aniztasunaren gaia lantzeko.

Erantzunetan, normaltasun hitza agertu da askotan abantail bezala baita desabantail bezala ere. Batetik familia nuklear batek baino gehiagok normal izatea abantail bezala adierazi dute. Nolabait adieraztera eman nahi dute haurarentzat giro normal bat dela, ez diola arazorik emango ohiko eredua delako. Baina interesgarria iruditzen zait familia batek baino gehiagok hori desabantail bezala ulertzea hauraren hezkuntzan, izan ere "Respecto al aprendizaje de nuestros hijos, no vivir una situación diferente puede

hacerles pensar que lo que no es igual a lo nuestro no es normal". Beste batzuk aniztasun falta adierazten dute baina ideia bide berdinean doaz.

Normaltasunaren gai honetan ohiko eredutik ateratzn den guraso bakarreko familiak gutxiengoak direla eta ez dagoela normalizatua azpimarratzen dute, ez da teoria hutsa, familiak berak azpimarratzen dute. Baita desabantailetan azpimarratzen dute arlo ekonomikoa, soldata bakarra sartzen baita etxean, baina hori guztia konpentsatzen dute azpimarratzen duten giro eta maitasunarekin. Nolabait ez dute azpimarratzen jende gehiagoren beharra, akaso haurrak hezitzerako orduan ikuspuntu bat baino gehiago izaterako orduan. Familia zabalarekin alderatzen badugu gehiengoek abantaila gisa ulertzen du jende asko egotea, bai ikuspuntu ezberdinak daudelako baita sortzen den giroagatik. Aniztasunaz gozatzeko aukera, beti norbaitengana jotzeko aukera izatea...

Guraso bakarreko, adopzio eta etorkinen familien kasuetan hiruetan atera da inplikazio hitza eta haien familia ereduaren abantaila gisa ikusten dute familia inplikatuak izatea. Familia nuklear eta zabala ez diren beste eredutan zenbaitetan atera da erabaki pertsonala delaren ideia, eta hori zerbait positibo bezala baloratzn dute, familia hori dutela nahi dutelako eta pozik daudela, oso lotuta teoriarik landu dugun familiak ulertzeko eta harremanatzeko modu berriekin, akaso gutxiago irauten dutela baina benetazkoak direla.

## **6. PROPOSAMEN HEZITZAILEAK**

Ez dago zalantzarik aniztasuna eta aldaketen abiadura dela eta, eskola eta familiak honi erantzuteko premia dutela. Kontzeptuetan azaldu den moduan ez dago eskola inklusiborik familia-aniztasunik eta beste zenbait aniztasunik onartu gabe, baina inklusioa honen onarpen, tratamendua eskatzen du. Lanerako Agudok proposatzen dituen zenbati neurri zehatz erabili dira erreferentziatzat proposamen hezitzaileak garatzeko:

a) Lanerako plan sistematizatuak eta prebentzio neurri batzuk sortu eta erabiltzea: Ezagupen, laguntza eta praktikarako gidak eta protokoloak berebiziko garrantzia dute

bai irakasle baita bestelako hezitzaileentzat (kasu honetan familiak bide honetan sujetu aktiboak izateko beharrezkoa da). Bai familia aniztasunaren gaia jorrazteko baita prebentzio eta interbentziorako interesgarriak dira. Gida hauek interesgarriak izan daitezkeen arren azaldutako familia eredu guztientzat (bai berreraikiak, homoparentalak, subrogatuak...) oraingoz leku gehiago izaten ari dute adopzio familien artean. Adibide bat aipatzearen Agintzari Kooperatibak Eusko Jarlaritzaren laguntzaz argitaratutako Adoptia Gida. Hezkuntza klabeak (2006) dugu.

b) Ume bakoitzaren garapenean, irakasleen lanak duen eragina baloratzea: Ume bakoitzaren errealitatea ezagutzea ezinbestekoa da horretarako bai irakasle eta zehatzago tutoreen lana familiarekin ezinbestekoa da, honek prozesu bat eskatzen du:

- Ikasle bakoitzaren familia egoera ezagutu eta hauekin komunikazio aproposa edukitzea, informazioa elkartrukitzea, familia eta irakaslearen arteko estrategia komunak adosteko, nolabait bidea norantza berdinean egiteko ikasleak bere eguneroko bizitzan ordu gehien pasatzen dituen esparruetan. Honen inguruan haurrei familiaren aniztasuna ezagutarazi eta naturaltasunez bizi eta ikustea lortu behar da bai gaia espezifikoki eta zeharka landuz. Hau da, familia aniztasuna eta hainbat gai landu behar direnean ikasleak aktibo izaten ohartuko gara guztiek hitz egiten badute badirela familia aniztasuna horren kontzientzia, izan ere oso egoera ezberdinak daude klase berdinean, orduan irakasleak dinamizatzaile izanda eta nolabait bideratuz lortu dezake lanketa on bat. Eta zeharkako lanketan inplikazioak berebiziko garrantzia dauka, izan ere ohartu gabe mezu asko bidaltzen ditugu huarrei iristen zaizkienak, izan ere erreferente nagusietariko bat gara.
- Familia aniztasuna ezagutu eta errespetatu, bai momentuko egoera baita egon diren atzetiko esperientziak, horrela bazterketa jarrerak ekiditeko edo hauen hurrean neurriak hartzeko.
- Irakaslearen zenbait aspektu ulertu eta lantzeko familiari ahal den neurrian laguntzea oso aproposa da. Beharrezkoa den kasuetan gurasoak Administrazioa, Ongizate Zerbitzura, Osasun arlora eta beste zenabit erakundetara bidaliz.
- Eskolak inguru sanu bat eskeini behar du zintzoa eta orekatua, arau konkretuekin. sozializazioa eta elkartasuna oinarri izanda, hauek bultzatzea... nolabait oinarri sendoa izan behar du.
- Kasu konkretuetan beharrezkoa balitz, hezkuntza premia konkretuei erantzuteko neurriak ezartzea.



- Curriculumaldatzea zaila bada ere badugu zer egiterik materialak egokituz, gelan bertan dinamika ezberdinak egiten, artearekin lotutako adarazpenak erabiliz eta gaia lantzeko baliogarriak diren baliabide ezberdin eta anitzak erabiliz ikasleen aniztasuna beti buruan izanda.

c) Familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren bultzatzea, bide ezberdinetatik: Lehenengo gauza garrantzitsua da bi aldetatik; bai eskolatik baita familiaren aldetik ulertzea biok haurraren hezkuntzan pisu garrantzitsua dutela onartzea eta bakoitzak baliabide, betebeharrak eta muga batzuk dituela. Hau ulertuta enpatia bultzatu behar da betiere helburu eta estrategia komunak finkatuz. Horretarako komunikazioa eta konfiantzarik gabe ezin da irizpide hau ulertu eta bultzatu. Lankidetzaren bultzatzea, hau bultzatzeko beharrezkoak diren baliabideak erabiliko dira behar izatekotan hezkuntza baliabide espezializatuen erabilpena joz.

d) Programazioaren unitate didaktiko eta zeharkako arloaren bidez, familia aniztasunarekin zerikusia duten edukietan sakondu: Esan bezala, aniztasunaren errealitateaz ohartzea ez da horren zaila gela barruan edo ikasleen errealitatean inguruan dituzten familiaz hitz egiten bada puntu horretara iritsi gaitzekelako. Baina aspektu honetan lotura ologikoak ez direla emozionalak baino esanguratsuagoak ulertzeko azpimarratu behar den ideia da, eta garrantzitsuean epaiketa eta deskalifikazioak ez dute lekurik izan behar. Momentu ezberdinak ditugu gai honetan sakontzeko, adibidez afektibitatearekin eta sexualitatearekin lotutako gaiak aukera polita ematen dute familia aniztasuna lantzeko erabiltzen diren programazio eta unitate didaktikoekin.

e) Material anitzak sortu eta erabiltzea, gaia perspektiba teorikoetatik ludikoetara eramateko aukera izateko: haiek bizi duten familia aniztasunak lantzeko eta hauekiko jarrera aproposa bultzatzeko beharrezkoa dute eta Agudok azpimarratzen du bisualizazioaren beharra: bai testuliburuetan, bai komunikabideetan baita eskolako materialailetan. Materialen aukeraketan edo sorkuntzan oso garrantzitsua da gaia lantzeko modua, eta merezi du aipatzeak argia izateko gero eta hezkuntza material

gehiago proposatzen dituztela eta benetan euskarri garrantzitsuak direla material bisualak. Adibide konkretua dugu Lehen Hezkuntzan literaturarekin, haurrek errealitatea eta fantasia lotzen dituen zubi horretan eroso eta izugarritzko motibazioa erakusten dute. Materialak garrantzi izugarria duten arren, toki aproposa da azpimarratzeko Curriculumaren eduki ugari familien errealitate ezberdinei egokitzeko beharra.

f) Gaiaren inguruko sentsibilizazioa, hausnarketa eta eztabaidak bultzatzea guraso, tutoretza eta eskola orientazioaren bidez.

Irakasleen prestakuntza bai hasierakoa (Unibertsitatean gauzatzen dena) baina oraindik garrantzitsuagoa eta batzutan ahazten dena, etengabekoa zehazki. Azken hau bide ezberdinetatik lortzen da eta askotan irakasleen inplikazioaren arabera da, baina asko dira dauden ikastaro, mintegi, lan-talde... baina gehiago erabili eta bultzatu beharko litzateke gai konkretuei buruzko aholkularien papera.

Eskolan, irakasle eta gurasoen artean, ikerketa bultzatu eta zabaltzea prestakuntza eta argitalpenen bidez. Lan hau antolatzeke moduak badu zerikusirik honekin, gizartean ematen diren aldaketa sozialak hezkuntzan eta beste errealitate batzuetan, dituzten ondorioak ikertzea eta eguneko egoerak eta errealitateak aztertzea beharrak detektatzeko eta horien arabera lan eta prebentzio lanak sortzeko ikerketa beharrezkoa da.

g) Estrategia didaktikoak eta metodologia ezberdinak martxan jartzea, gaia aberastasunez landu ahal izateko: talde dinamikak, lankidetzak ikaskuntza, adierazpen artistikoak, teknologia berriak... eta atal praktikoan aztertutako Frantzisko Deuna Eskolan aurrera eramaten den dinamika berritzailea dugu honen adibide gisa: talde elkarreragileak. Baita hezkuntza ez formala bitarteko interesgarria izan daiteke; bai kanpaldi, erakusketa, filmak, eztabaidak...

*Adibide konkretua: Frantzisko Deuna eskolan familia aniztasuna lantzeko talde elkarreragileen erabilera bultzatzea. Dinamika berritzailea azalduko da, baina nire*

*proposamena da dinamika hau erabiltzea aniztasunak lantzeko, zehazki familia aniztasuna, horretarako familien partaidetza zuzena behar-beharrezkoa da:*

Zer dira? irakasleok eta eskolaz kanpoko bolondresak, askotan familiak, parte hartzen duten proiektua, non txoko ezberdinak egiten dira klaseak (irakurketa, idazmena, matematikaa eta mintzamena gehienetan ) eta bolondres bakoitza talde batean kokatzen da 4 ikaslerekin lan egiteko. 20 minutuero aldatzen dira txokoz ikasleak. Tutoreak koordinatzen ditu txoko guztiak.

Proiektuaren helburuak hurrengoak dira:

<sup>35</sup><sub>17</sub> Eskolako ikasle ororen emaitza akademikoak hobetzea.

<sup>35</sup><sub>17</sub> Gaitasun komunikatiboa hobetzea: entzutea, alde eta kontrari argudiatzea...

<sup>35</sup><sub>17</sub> Bizikidetzarako beharrezkoak diren baloreak garatzea eta bultzatzea (errespetua, elkartasuna, elkar laguntzea...)

<sup>35</sup><sub>17</sub> Irakaslearen proposamen metodologikoak hobetzea

<sup>35</sup><sub>17</sub> *Familien gela barneko partaidetza sustatzea*

<sup>35</sup><sub>17</sub> Auzoko gizarte eragile eta hezkuntza eragileen arteko harremanak sortzea eta sendotzea.

Lehenengo urtea izan zen iaz egin zena, nik parte hartu nuen eta egin genuen balorazioa horrela laburtu dezakegu, ikusteko izan duen onarpena:

Irakaslearen balorapena: parte hartu duten hamaika irakasleek balorapen galdetegia erantzun dute. Erantzun guztiak zenbakidun eskala batetan antolatuta daude Orik (puntuazio baxuena) 5eraino (puntuazio altuena). Proposatutako galderen artean, ondoko hauek nabarmendu behar dira:

- Irakaslearen %55ak, proiektua 5 batekin baloratzen du eta %45ak, 4 batekin.
- Irakaslearen %82 batek bolondresen partehartzea 5 batekin baloratzen du eta %18 batek, 4 batekin. Irakasle baten erantzuna gehiengoaren iritzia laburbiltzen du: “taldera oso ongi egokitu dira eta oso motibatuta etorri dira beti”. Irakasleak ongi badakite, beren denbora eta lana eskaintzen duten bolondresik gabe, proiektua ezin izango zela aurrera eraman. Parte hartzaileen

aniztasuna aipatu behar da (adina, sexua, formakuntza...), horrek ikaslegoari irakaslegoaren perfil desberdina duten pertsonekin identifikatzea errazten dio, erlazio afektiboak ezartzen dituzte beraiekin.

- Curricular gaitasunen lanketan duen eraginari dagokionez, %27 batek 5 batekin baloratzen du eta %72 batek, 4 batekin.
- Ikaslegoaren arteko elkarlan eta errespetuzko jarreretan duen eragina, irakaslegoaren %18 batek 5 batekin baloratzen du eta %82 batek 4 batekin. O irakaslegoaren %45 batek aipatzen du proiektuaren partehartzeak, berdinen arteko ikaskuntza zabaldu egin duela gelan, beste lan momentu batzuetan, eta %55 batek, neurri batetan bultzatu egin duela.
- Jarduera ezberdinekin bilatzen diren helburuak lortzeko, gelaren antolaketa honek eskaintzen duen denboraren aprobetxamendua azpimarratzen da.
- Hurrengo ikasturtean esperientzia errepikatuzeko asmoari buruz galdetzerakoan, %73 batek “zalantzarik gabe” errepikatuko dutela esaten dute eta beste %27 batek “seguraski” errepikatuko dutela adierazten dute.

Pertsona bolondresen balorapena:

- Proiektuaren antolaketa orokorra %52ak 4 batekin (0tik 5erako eskalan) baloratzen du eta %48ak 5 batekin.
- %86ak saioetan oso gustora sentitu izan dela erantzun du, 5 batekin baloratu bere sententzioa, %10ak 4 batekin eta %5ak 3 batekin.
- Datorren urtean berriz parte hartuko ote duten galdetuta, %89a astean behin bolondres moduan etortzeko prest agertzen da, %5a “noizbehinka”, eta beste %5ak ez daki ahal izango duen.
- Irakasleekin koordinaketari dagokionean iritzien arteko desadostasun gehiago agertu dira. Gehiengoak koordinaketa perfektua (burutu beharreko ekintzen aurretiko ezagutza esplizitua, jardueraren helburua, ...) azpimarratzen du, baina gelara iritsi eta eginbeharrekoaren inguruko ezjakintasuna eta momentuan bertan prestatzera behartuta sentitzea (testuak, ariketak, ...) ekiditeko batzuk koordinaketa gehiago egon beharko lukeela aipatzen dute.
- Partehartzean lortutako onura pertsonalen komentarioak azpimarratzen dute zeinen atsegina izan den auzoko haurrak ezagutzea, beraiekin erlazionatzea eta beren aurrerapausoak ikustea. Senideek zehazki eskola barrutik ezagutzeko aukera baloratzen dute.

Ikaslegoaren balorazioa:

- Ikasleek proiektuari buruz duten iritzia modu ezberdinez jaso da ikasleen adinaren arabera. Hasteko, irakasleei, haien ustez, ikasleak nola sentitu diren galdetu zaie, modu honetan zeharkako balorapena eginez. Irakasle guztiek galdetegian “oso gustura” aukeratu dute. Honez gain, irakasle bakoizak bere taldean balorapena nola egin erabaki du. Bigarren eta hirugarren zikloetako talde batzuetan idatziz jasotako informazioan ikasleen oso balorapen positiboak islatzen dira. Maiz errepikatzen diren ideiak honako esaldietan biltzen dira: “talde txikian gehiago ikasten dut”, “batzuetan lanak ez ditut ongi ulertzen baina laguntzen didate”, “oso ongi pasatu dut eta asko ikasi dut”, “mutila zelako gustatzen zitzaidan (gizonezko bolondres bati erreferentzia eginez) eta eskolan denak neskak dira (irakasleei erreferentzia eginez)”, “Berarekin ongi sentitu naiz” ,” hurrengo kurtsoan errepikatzea gustatuko litzaidake”, “matematika ez zait gustatzen baina jolasen bidez atseginagoa iruditzen zait”.

Hain harrera ona izanda nire proposamena da talde elkarreragileak erabiltzea familia aniztasunaren gaia lantzeko. Gai hori talde elkarreragileen dinamikarekin lantzea, familietako bolondres ezberdinekin, bakoitzaren bizipena eta ekoiztutako material ezberdinak landuz. Frogatua geratu da ikasle bolondres eta irakasleen sentsazioak guztiz positiboak direla dinamika berri honekin beraz, zergatik ez landu familiek guztiz menperatzen dituzten errealitateak?

Eskolatik kanpo:

- Irakasleak bakarrik egon ez daitezen: eskolaren inguruak, hezkuntza administrazioek eta beste erakunde sozial batzuek haiekin batera lan egin beharko dute, sarean antolatuz: Flaquer-ek (2005) azpimarratzen du familia-politikaren eremuan hartzen diren neurriek beste arlo sozial batzuetan ere (eskolakoetan barne) ondorio garrantzitsuak dutela. Hainbat estrategia proposatzen dira behar horiei aurre egiten lagunduko luketenak ):
- Hezkuntzako legeria eta horren garapenak. Ez da nahikoa gaiaren garrantzia eta onarpena islatzea baizik eta eskolak beharko lituzkeen baliabideen agerpena. Familia aniztasunak bere lekua izan behar du Estatuaren curriculum ofizialetan, honen garapen autonomikoetan eta irakasleen baliabideetan: programazio, hezkuntza estandarretan, curriculum materialetan.... Baina ez soilik tokia izan behar duela gaiak baizik eta tratamendu egokiarekin.

- Gizarte politikak martxan jartzea administrazioarekin eta erakunde sozialekin batera ( hezkuntzakoak, kulturakak, politikoak, judizialak, lanekoak, ludikoak...). Eskola ez da ente isolatu bat, errealitate batean testuinguratua dago erakunde askoz inguratua. Honek suposatuko lukeen sentsibilizazio eta eztabaida sozialak berebiziko garrantzia izango luke. Baina familia aniztasun horren eskubide berdintasunean sinisteko hori eman behar da eta horretarako erakunde hauek parte hartze garrantzisa dute: besteak beste, laguntza fiskalak, lanaldiaren murrizketak , eszedentziak seme alaben zainketarako BEZ aren murrizketa gaixo, ume edota mendekotasuna dutenentzat... eta egin nahi den eta egin behar den lanketa aurrera eramateko ezinbestekoa den beste hildo bat: beharrezkoak dira lana, familiak eta bizitza pertsonala uztartzeko politika eraginkorrak: eskola eta lan ordutegien egokitzapena, lanaldi trinkoak, espazioen beharra.... Behin eta berriz esan den bezala eskola hainbat erakundez inguratua dago, sozialetan murgiltzen bagara hauekin sarean lan egitea izugarri lagungarria izan daiteke: Administrazioarekin, gizarte zerbitzuekin baina baita kirol erakundeekin, zentro ludikoekin, parrokiekin, komunikabideekin, beste ikastetxeekin. Horretarako lehenengo pausua ezinbestekoa da, ezagupena, kontaktua eta elkarlana.
- Premiazkoa da eskolan diharduten hezkuntza-eragile eta taldeek gaia jorratzea, zabaltzea eta orientaabide zehatzak ematea, partaide guztieei: irakasle administrazio eta familiei ere. Izan ere, nahi edo boluntatearekin ez da nahikoa, gaiak lanketa eskatzen du.
- Gure herrialdean neurriak hartu aurretik beste tokietan egin diren lanketen azterketa garrantzitsua izan daiteke, bai eman diren prozesuak, eta izandako emaitzak. Horrela zenbait aspektu aurrera eramaterako orduan prebentzio gisa erabili daiteke.

Haurren hezkuntzarekin konpromisoa dugun pertsona guztiok badugu zereginik familiaren aniztasunaren aurrean.

## ONDORIOAK

Lan honek lagundu izan dit familia aniztasunaren gaiaren inguruan informazio gehiago izateko baita etorkizunean nire irakasle lanean edo familiako kide bezala, gaiaren inguruan hausnartu eta tratamendu egoki bat ematen saiatzeko, behintzat eman behar zaion garrantzia baloratzuz.

Marko teorikoa (bai oinarri soziologikoak eta pedagogikoak) eta zenbait autoreek garatu dituzten ideiak aztertu eta gero familiak edozein gizakiaren sozializazioan berebiziko garrantzia daukala. Baina ez naiz ari aita ama seme eta alabaz, baizik eta familiaz ari naizela; Familia definitzeko modu asko aztertu dira lan osoan zehar definizio bakoitza familiaren aspektu ezberdinetan zentratzen delarik baina gaur egun familia definitzen dugun guztiok beharrezkoa dugu "aniztasuna" hitza erabili. Familia eredu asko dago eta gutxiestuak dauden zenbait ereduren onarpen sozial zein legedian ere aurrepausuak eman diren arren, asko geratzen da edozein familia eredu eta egoera normaltasunez bizitzeko. Honetarako, tratamendurako lanketa ezinbestekoa da, berdindu behar da dagoen desoreka, bai eskoletan baita familietan ere.

Alde pedagogikoari dagokionez zera esan dezakegu: Eskolari askotan zaila egiten zaio familien erronka berriei aurre egitea, aniztasunaren tratamendua ez baita erraza. Aniztasuna errealitate bat den arren nire ustez aniztasun hau ezkutatzeko saiakera egon da. Eskolan familiaren gaia lantzean, familia nuklearraren ereduan zentratuz, eta beste ereduak arazoduntzat hartuz.

Beharrezkoa da hurrek bizi dituzten errealitateak normaltasun eta naturaltasunez lantzea eta bizitzea, errealitatean ematen diren modu berdinean eta aniztasun hau ikasteko modu bat bezala ulertzea. Ezin zaizkie hurrei begiak itxi eta hauek bai bere bizitzan baita inguruan ikusten eta antzematen duten errealitate bat da beraz eskolak hausnarketa bat egin behar du gaur egungo familien konfigurazio, balore eta funtzioaz, denbora antolaketaz eta gaur egungo familia zabalarekiko harremanaz. Bestela ezkutuko curriculumean jarraituko du eta erakutsiko dena beste errealitate bat izango da eta ez hurrek bizi dutena. Curriculum ofizialean familia aniztasunaren edukia agertzen da eta beste alde batetik aniztasunari tratamenduaren atal bat; baina batetik familia aniztasunaren edukia aipatzerako orduan honen lanketa moduaren hutsunea

somatzen dut eta ordea, aniztasunaren tratamenduan ez da familia aniztasun mota bat bezala azaltzen, beraz esan dezakegu curriculum ezkutuan mantentzen dela. Batzutan nahiz eta guzti honetaz kontziente izan ez dago beharrezko informazioa, prestakuntza edo boluntatea.

Familia eta eskolaren lan bateratua da giltza, ez bakarrik honi aurre egiteko baizik eta ikasteko erabiltzeko, aniztasuna ikasteko herraminta gisa erabiliz. Horrela, hezkuntza komunitatearen bidez bide sozial eta hezitzaile berdinean aurrera eginez.

Alde praktikoan teorian landu eta hausnartutako zenbait aspektu landu eta konprobatu ditut kasu bat aztertuz

Familia aniztasuna errealitate bat dela Lehen Hezkuntzako klaseetan eta oraindik bai etxeetan baita eskolan ere lana dagoela egiteko gai honen lanketan.

Nire kasu konkretuan familia eredu hauetan kokatu dira inkesta bete duten familiek: zabala, nuklear funtzionala, guraso bakarreko familia, izatezko bikotea, adopzio familia eta etorkinen familia.

Eta argi ikusi da familia nuklear funtzionalaren eredutik ateratzen ziren familia ereduak ez dutela zergatik eragin negatiboa izan ez haurraren emaitza akademikoetan ezta haurraren sozializazioan ere., ez daukala harreman zuzenik. Akaso sozializazio arazoak ekar ditzakeena eredu hoietatik kanpo gelditzen diren hauerrengan, gizartean zenbait familia eredu gutxiestuak egoteak baina ez bere familia arazotsua delako.

Eskolan familia aniztasunari buruz egiten den lanketaren inguruan esan dezakegu, oro har familiek badakitela familia aniztasuna eskolan lantzen den gai bat dela baina familia kantitate berak ez daki nola lantzen den. Oro har pentsa dezakegu ez dagoela ardura garrantzitsu bat familien partetik gaiaren inguruan, baina aztertzerakoan zeinek izan diren ardura erakutsi dutenek ikusgarria da familia guztiak ez ohikotzat hartu izan diren familia eredutan kokatzen direla. Esan dezakegu orokorrean trataera kezkatzen gaituela gure egoera pertsonala ezberdina baldin bada, bestela ez diogu gaiari erreparatzen.

Badirudi familiaren inplikazioak bai eskolan baita auzoan ere eragina izan ditzakeela ikasleek dituzten besteekiko harremanetan.



Talde elkarreragileen gaia aztertu den beste gai bat izan da eta kontutan izanda bigarren urtea dela dinamika berritzaile hau egiten dela, emaitzak aipagarriak dira. Izan ere nahiz eta parte-hartzea ez den oso altua gutxienez gehiengoak badaki zertan datza eta ez parte-hartzearen arrazoia ez da interes falta baizik eta beste arrazoi batzuk.

Honekin guztiarekin argi daukat bai etorkizuneko irakasle bezala baita familiako kide bezala badagoela asko egiterik familia aniztasunaren gaiaren tratamenduan eta beste aniztasunekiko ardura eta interesa oso piztuta daukadala.

## ERREFERENTZIAK / REFERENCIAS

Aguado, Lucia (2010). Familia ereduak gaurko eskolan. *Tantak*, 22(1),127-148.

Alberdi. I (1999). La nueva familia española. [Disponible en (10/01/2014):  
<http://www.mounier.es/revista/pdfs/061061064.pdf>]

Colegio San Roque, Alicante (2008). Encuesta dirigida a los padres de familia.  
[Disponible en (09/01/2014):  
<http://colegiosanroque.org/menug/Formamos/encuestas/padres.pdf> ]

Departamento de Educación de Georgia (2012). Encuesta para padres sobre  
participación familiar en la escuela. [Disponible en (09/01/2014):  
<http://www.gadoe.org/School-Improvement/Federal-Programs/Documents/Parent%20SurveyFINALjb%20-%20Spanish%20-%20GaDOE.pdf> ]

Flaquer, L. (1999). 'La familia en la sociedad del siglo XXI'. Papers de la Fundació Rafael Campalans, Num. 117. Barcelona.

Gonzalez. M. Nuevos modelos familiares. *De la familia modelo a los modelos de familia*. Universidad de Sevilla. [Disponible en (10/01/2014):[http://www.pasa.cl/wp-content/uploads/2011/08/Nuevos\\_modelos\\_familiares\\_Gonzalez\\_Maria\\_del\\_Mar.pdf](http://www.pasa.cl/wp-content/uploads/2011/08/Nuevos_modelos_familiares_Gonzalez_Maria_del_Mar.pdf)]

Haralambos. M & Holborn. M (1995, 4ª.edition). Families and households, 317- 331 pags. De: SOCIOLOGY, THEMES AND PERSPECTIVES Ed. Collins Educational

Juaristi. P (2003). Ikerketa prozesua gizarte zientzietan. *Gizarte ikerketarako teknikak*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Junta de Andalucía (2012). Cuestionario para las familias. [Disponible en (09/01/2014): [http://www.juntadeandalucia.es/averroes/convivenciaeigualdad/guia/elementos/a\\_dia\\_gnostico/cuestionario4\\_familias.pdf](http://www.juntadeandalucia.es/averroes/convivenciaeigualdad/guia/elementos/a_dia_gnostico/cuestionario4_familias.pdf)]

Ministerio de educación de Perú (2010). Encuesta para padres de familia/ Apoderados de primaria. [Disponible en (09/01/2014): [http://www2.minedu.gob.pe/umc/admin/images/archivosprincipal/archivopri\\_34.pdf](http://www2.minedu.gob.pe/umc/admin/images/archivosprincipal/archivopri_34.pdf)]

Plentziako Eskola (2010). Elkarbizitza plana “egunez egun hobetuz”. [Disponible en (09/01/2014): <http://www.plentziaeskola.net>]

Taberner, J. (2009). Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza- sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak. Universidad del País Vasco.

Usategi, E & del Valle, A (2007). *La escuela sola: transmitir en valores en una escuela en cambio*. (Informe sobre la transmisión de valores en la enseñanza obligatoria de Vitoria- Gasteiz). Universidad del País Vasco, Leioa.

## **ERANSKINAK / ANEXOS**

**A. I. Eranskina/ Anexo I : inkestaren plantilla / plantilla de la encuesta realizada**

Emakumea/Mujer       Gizona/Hombre

Adina /Edad

Lana egiten duzu?/ *En estos momentos estas trabajando?*       BAI/SI       EZ/NO

Euskaraz dakizu? / *Sabes euskara?*       BAI/SI       EZ/NO       PIXKA BAT/UN POCO

Zenbat seme-alaba dituzu? *Cuántos hijos/as tienes?*

Etxean bizi dira? *Viven en casa?*       BAI/SI       EZ/NO

Zer harreman duzu ikaslearekin? *Qué parentesco tienes con el o la alumna?* (Ama /madre , aita/ padre, amona/abuela ...) \_\_\_\_\_

Non ikasi duzu/ *Donde has estudiado?*

- Eskola publikoa/escuela pública
- Eskola pribatua/escuela privada

Zein maila arte ikasi duzu? *Hasta que curso has estudiado?*

- Lehen Hezkuntza /educación primaria
- Bigarren Hezkuntza/educación secundaria
- Goi mailako ikasketak/ estudios superiores

Auzoko jardueretan parte hartzen duzu? *Tomas parte en actividades del barrio?*

- BAI/SI       EZ/NO

Eskolako jardueretan parte hartzen duzu? *Tomas parte en actividades de la escuela?*

- BAI/SI       EZ/NO

Talde elkarreragileetan parte hartzen duzu? *Tomas parte en los grupos interactivos?*

- BAI/SI       EZ/NO

Zer familia eredutan kokatzen zara? *En que tipo de familia te sitúas?*

- Familia zabala (guraso, eta aiton-amonak)/ familia extensa (padres y abuel@s)
- Familia nuklear funtzionala (guraso eta seme-alabak)/ familia nuclear (padres e hij@s)
- Guraso bakarreko familia/ familia de solamente un padre o madre
- Izatezko bikotea/ pareja de hecho
- Familia berreraikia/ familia reestructurada
- Adopzio familia/ familia de adopción
- Familia homoparentala/ familia homoparental (parejas del mismo sexo)
- Etorchinen familia/ familia de inmigrantes

1. Nola kalifika daitezke zure semealabaren emaita akademikoak? *Como calificas los resultados académicos de tu hij@?*

- Gutxi/suspenseo       Nahiko/suficiente       Ongi/bien       Oso ongi/notable
- Bikain/sobresaliente

2. Beste haurrekin harremanatzeko orduan zein arazo izaten ditu zure seme-alabak? *Qué problemas tiene tu hij@ a la hora de relacionarse con el resto de alumn@s?*

- Batere/ ninguno  
 Jarrera pasibo eta sumisoa/ *actitud pasiva y sumisa*  
 Jarrera inposatzailea zenbaitetan/ *comportamiento autoritario*  
 Beste bat/ *otra*. Zein?/ *Cuál?* \_\_\_\_\_

3. Ba al dakizu eskolan lantzen den gai bat familia aniztasuna dela? *Sabes que uno de los temas que se trabajan en la escuela es la diversidad de familias?*  BAI/SI  EZ/NO

Ba al dakizu nola lantzen den? *Sabes cómo se trabaja?*  BAI/SI  EZ/NO.  
Zein hutsune aurkitzen duzu? *Que debilidades o faltas encuentras?* \_\_\_\_\_

4. Noizbait zure seme-alaba gaizki pasa izan du, sentitzeagatik daukan familia “ezberdina” dela? *Alguna vez tu hij@ lo ha pasado mal, por sentir que la familia que tiene es “diferente”?*

- BAI/SI  EZ/NO

5. Noizbait hitz egin izan duzu zure seme-alabarekin dagoen familia aniztasunaz (eredu eta egoera ezberdinetaz)? *Alguna vez has hablado con tu hij@ sobre la diversidad familiar que existe (tipos y situaciones diversas)?*  BAI/SI  EZ/NO.

Baietz izatekotan, normaltasunez ikusten ditu? *Si es que sí, ve con normalidad los diferentes tipos y situaciones?*  BAI/SI  EZ/NO. Zer gauza ez ditu ulertzen? *Que cosas no entiende?* \_\_\_\_\_

6. Zure ustez zure seme-alabarentzat zein familia egoera edo ereduk harritzen du gehien? *En tu opinión que tipo o situación familiar le sorprende más?* \_\_\_\_\_

7. Noizbait aipamen berezirik egin du beste familia eredu batetaz? *Alguna vez ha hecho algún comentario especial sobre algún tipo de familia?*  BAI/SI  EZ/NO

8. Zure familia ereduaren abantailak eta desabantailak? *Ventajas y desventajas del tipo de familia en el que te sitúas o tu situación familiar?* \_\_\_\_\_

9. Nolako harremana duzu zure seme-alabaren tutorearekin? *Qué relación tienes con el tutor o tutora de tu hij@?* \_\_\_\_\_

10. Seme-alabaren heziketan norantza antzekoan zoazte zu familia bezala eta tutorea? *En la educación de tu hij@ vais en la misma dirección tú como familia y el tutor?*

- Batere/para nada  bai, nahiko/si, más o menos  guztiz/totalmente

11. Zenbat denbora pasatzen duzu bataz beste ikaslearekin astegun batean? *Cuanto tiempo pasas de media un día entre semana con tu hij@?* \_\_\_\_\_ Beste pertsonengana jo behar duzu zure seme-alabarekin geratzeko? *Tienes que acudir a otra persona para que se quede con tu hij@?*  BAI/SI  EZ/NO. Norengana? A quien? \_\_\_\_\_

12. Aiton-amonak ditu zure seme-alabak? *Tiene abuel@s tu hij@?*  BAI/SI  EZ/NO. Noiz egoten dira zure seme-alabarekin? *Cuando están con tu hij@?* \_\_\_\_\_

---

13. Talde elkarreragiletan parte hartzen duzu? *Tomas parte en los grupos interactivos?*  BAI/SI  EZ/NO. Ezetz izatekotan zertatik? *Si es que no, cuál es el motivo?*

---

Zertan datzan dakizu? *Sabes en que consisten?*  BAI/SI  EZ/NO. Uste duzu baduzula klase barruan zer irakasterik ikasleei? *Crees que tendrías algo que enseñar a l@s alumn@s dentro de clase?*  BAI/SI  EZ/NO

14. Seme-alabak emaitza akademiko txarrak izatekotan, norengana jotzea da aproposena? ordenatu 1etik 5ra. *Cuando un/a hij@ tiene malos resultados académicos a quién es más adecuado acudir? Ordenalos del 1 al 5.*

- beste familiak/*otras familias*
- tutorea/ *tutor/a*
- ikaslea bera/ *al alumn@*
- zure familiako beste kideengana/ *a otros componentes de vuestra familia*
- eskola partikularretara /*clases particulares*

15. Seme-alabak harremanetan arazoak izatekotan norengana jotzea da aproposena? ordenatu 1etik 4ra. *Cuando un/a hij@ tiene problemas para relacionarse a quién es más adecuado acudir. Ordenalos del 1 al 4.*

- beste familiak/*otras familias*
- tutorea/ *tutor/a*
- ikaslea bera/ *al alumn@*
- zure familiako beste kideengana/ *a otros componentes de vuestra familia*